# ERANSKINAK

1. eranskina. Aztertutako liburuen informazioa ……………………………………………..29

2. eranskina. Liburuetan identifikatutako balioak ………………………………….…..68

3. eranskina. Liburuetan identifikatutako balioen sailkapena ………………………………74

4. eranskina. Liburuetan identifikatutako  kontrabalioak …………………………...….…79

5. eranskina. Identifikatutako  balioei buruzko grafikoak ……………………………...…80

6. eranskina. Irakasleei egindako elkarrizketak ……………………………………...……83

## 1. eranskina. Aztertutako liburuen informazioa

Blacker, T. (2001). *Marisorgin eskolan*. Miru. Elkar — Nº 1




A ikastetxea (publikoa).
4. maila. Euskara

Hirugarren mailako gela guztien artean txarrena izateagatik da ezaguna eta hori konpontzeko irakasle berria heldu da: Marisorgin Harrigarria. Gainerako irakasleak eta guraso batzuk harekin pozik ez egon arren, ikasleek ikasketetan interesa berreskuratu dute, inplikatuta daude eta portaera ona dute. Gainera, bikaintasun-sari guztiak irabazi dituzte. Irakasle berriaren trikimailua magian oinarritzen da, eta kaleratu nahi badute ere eta ikasleak horren aurka agertzen badira ere, berak ikastetxetik joatea erabakitzen du, beti magia behar den lekuetara joaten delako, eta ikastetxe horretan jada magia behar ez dutela uste duelako.

Adiskidetasuna, irudimena eta lagunartekotasuna.

Santisteban, K. (1994). *Ilargiaren eztula*. Ziaboga. Bruño — Nº 2




A ikastetxea (publikoa).
4. maila. Euskara

Liburu hau 6 istoriok osatzen dute.

Lehenengoari dagokionez, eztia ez hartzeagatik Ilargia konstipatzen da, eta eztul egitean oso forma arraroak egiten ditu, Ilargiaren faseekin bat ez datozenak.

Bigarrenari dagokionez, haur batek tonbola batean txotxongilo bat irabazten du, eta horrekin obsesionatzen da. Azkenean, umea txotxongilo bihurtzen da.

Hirugarrenari dagokionez, taberna batean abandonatutako karta zahar batzuek munduan barrena ibiltzea erabakitzen dute. Handik denbora batera, beren lurraldera itzultzen dira, eta ohartzen dira faltan bota dituztela. Ondorioz, ohorezko beira-arasan jartzen dituzte tabernan.

Laugarrenari dagokionez, aitona oso triste dago esne gozoa ematen duen behia hil egin zaiolako. Orduan, bilobak, makila magiko batekin, zapore desberdineko beste esne-behi bat lortzen du.

Bosgarrenari dagokionez, ona izan nahi zuen sorgin gaizto bat mozorrotu eta haur-festa batera doa. Neska batek estalgabetzen

<table>
<tr><td></td><td>duenean, sorgina haurrak jaten hasten da, izutzen ez den eta musu bat ematen dion neskato bat aurkitzen duen arte. Une horretan, sorginak oso sentsazio atsegina sentitzen du eta sorgin on batean bihurtzen da.<br>Azkenik, farola bat parkea argiztatzeaz harro dago, egun batean aspertuta eta bakarrik sentitzen den arte eta beste leku batzuetara joatea erabakitzen du. Orduan, ezagutzen duen beste farola batez maitemintzen da, eta elkarrekin txoko bat argiztatzea erabakitzen dute, lekurik argitsuena izango dena.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Osasuna, afektua, maitasuna, eskerrekotasuna eta irudimena.</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td>Doumerc, B.(2005). *Bi azeri estu eta larri*. Tukan urdina. Giltza</td><td>Nº 3</td></tr>
<tr><td>

A ikastetxea (publikoa).<br>3. maila. Euskara</td><td>Gau batean, Bustantxo azeria tranpa batean harrapatuta geratzen da, eta Gorriska, bere bikotekidea, laguntza bila joaten da hau askatzeko. Lehenik, txorimalo bat konbentzitzen du eta gero bere etsairik handienarekin, oilarrarekin, kolaboratzea lortzen du. Egunsentia 7 minutu atzeratzea lortzen du eta horrela denbora irabazten du. Bitartean, tenorea izan nahi zuen eta igel batez maiteminduta zegoen apo bat putzu batera botatzen da bizitzeko gogorik ez duelako. Horren ondorioz, putzu horretan bizi den Alderantziz iratxoa esnatu eta ehiztariaren poltsikoan sartzen da. Iratxoa berarekin daukanez, ehiztaria dena alderantziz egiten eta atzeraka ibiltzen hasten da. Bitartean, Gorriskak animalia guztien laguntza lortzen du, eta batzuetan amona bisitatzera joaten den Peli haurrak Bustantxoraino eramaten duen zaldi baten gainean igotzen da. Azeriaren egoera ikusita, amonaren bila joango da, eta amonak azeria askatu eta sendatuko du.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Maitasuna, laguntza, barkamena, itxaropena, lagunartekotasuna eta animalien zaintza.</td></tr>
</table>

| Añorga, P. (2010). *Pottoko hipermerkatuan.* Xaguxar. Elkar | Nº 4 eta 35 |
|---|---|
|   A ikastetxea (publikoa). 3. maila. Euskara eta C ikastetxea (itunpekoa) 3. maila. Euskara | Pottoko beti ibiltzen da bere baserrian sartuta eta, egun batean, bere gurasoekin berria den hipermerkatu batera joaten dira: Hipermerkatu Elefante. Bertan, 10 euro ematen dizkiote berak nahi duena eros dezan. Berriz, hipermerkatuan galtzen da eta dirua lapurtzen diote. Orduan, bezero guztiak bertatik atera behar direla adierazten duen ahotsa entzuten duen arren, bera informazio gunera joan nahi du lapurketa salatzera. Pottoko lapur bat dela uste dute eta harrapatzen saiatzen dira. Pottokok ihes egiten du baina amaieran poliziek harrapatzen dute. Azkenik, Pottoko hipermerkatuan galdu den baserritarra dela ikusten dute, gurasoak etengabe bere bila izan dituen baserritarra. Honekin, Pottoko bere baserrira itzuli egiten da. |
| Kontsumo kontzientea eta kontsumo arduratsua. | |

| Kazabon, A. (2000). *Momolo*. Matxinsalto. Ibaizabal | Nº 5 eta 45 |
|---|---|
|   A ikastetxea (publikoa). 4. maila. Euskara eta C ikastetxea (itunpekoa) 4.maila. Euskara | Josebari Momolo deitzen diote bere ikasgelan, izan ere, klaseko mutilek etengabe zirikatzen diote eta ez diote lasai bizitzen uzten. Seigarren maila hasten denean, Momolo guztiz aldetuta dago. Kurtso honetan helburu bat du: mendekua hartu. Beraz, banan-banan ikaskideei bihurrikeriak egiten dizkie: ura bota, harrizko baloi baegatik baloia aldatu, bidea adierazten duten papertxoak aldatu hauek galtzeko... Horrela, klaseko mutilek bakean uzten dute Momolo, baina honek ez du nahikoa honekin, izan ere, ikaskideen laguna izan nahi du. Olerki egunean, mutil bakoitzari olerki bat idazten dio, bakoitzari egindako bihurrikerian oinarritzen direnak. Azkenik, bere sentimenduak adierazten dituen olerki bat irakurtzen du klase aurrean. Guztiak hunkitu egiten dira eta besakarda bat ematen bukatzen dute, lagun minetan bihurtuz. |
| Adiskidetasuna, barkamena eta errespetua. | |

| Santisteban, K. (1998). *Ostadarraren zazpi ateak*. Matxinsalto. Ibaizabal | Nº 6 |
|---|---|
| <br>A ikastetxea (publikoa).<br>3. maila. Euskara | Argiñe neskato oso alaia da. Koloreak izugarri gustatzen zaizkio eta beti oso koloretsu joaten da jantzita. Irakasle batek ostadarrari buruz hitz egin zien eta egun hartatik aurrera Argiñek ideia bakar bat du buruan: ostadarrera joatea. Egun batean, Argiñeren logelaren leihotik ostadarra agertu zen. Bertan igo eta kolore bakoitzetara eramaten zituzten ate guztiak zabaldu zituen. Kolore bakoitzaren barruan abentura desberdin bat bizi zuen. Amaitzean, koloreek indarra galtzen hasi ziren eta txirrista batean egongo balitz bezala, ostadarretik bota zen bere logelara itzuliz. |
| Iraunkortasuna, nortasuna eta irudimena. | |

| Arana, A. (2003). *Klaudia eta baloien sekretua*. Matxinsalto. Ibaizabal | Nº 7 |
|---|---|
| <br>A ikastetxea (publikoa).<br>3. maila. Euskara | Duela urte asko, herritarrak lan egiteko bakarrik bizi ziren, eta haurrek laster uzten zuten eskola, lanetara batu ahal izateko. Klaudiak 10 urte zituela utzi zuen eskola eta ordutik osabaren lantegian lan egiten zuen. Futbola maite zuen eta beti joaten zen basora jolastera, baina mutilek ez zioten jolasten uzten neska izateagatik. Egun batean, haur berri batek, Iñigok, baloia galdu zuen eta ume guztiak ikaratu ziren. Klaudiak kontatu zion baloiak uharte batetik zetozela, non aurretik umeak hil zituen mounstro bat baitzegoen, eta han baloi baten bila joan beharko zuela. Klaudiak laguntzea erabaki zuen, eta uhartera iritsi zirenean eta Iñigok baloi bat hartu zuenean, igel baten antzeko mounstro erraldoi batek heldu eta eraman egin zuen. Klaudiak Iñigo laguntzeko uhartean geratzea erabaki zuen, eta han konturatu zen gertatzen ari zenaz: ez ziren baloiak, mounstroaren arrautzak ziren, eta horregatik uhartera arrautzak hartzra joaten ziren umeei erasotzen zien. Klaudiak tratu bat egin zuen mounstroarekin: baloiak osabaren lantegian egingo zituen, eta ez ziren baloien bila uhartera iztuliko, Iñigo eta hilda zeudela uste zuten gainerako haurrak askatzearen truke. Klaudia heroia izan zen bere herriarentzat, ikastera bueltatzeko aukera izan |

| | |
|---|---|
| | zuen eta Klaudiaren istorioak neskak futbolean hastera animatu zituen. |
| Iraunkortasuna, balentasuna, zintzotasuna eta lagunartekotasuna. | |

| Zubeldia, I. (1998). *Pako belea*. Matxinsalto. Ibaizabal | Nº 8 |
|---|---|
| <br>A ikastetxea (publikoa).<br>3. maila. Euskara | Rogeliok zauritua dagoen belekume bat aurkitzen du eta bere etxera eramaten du hau sendatzeko xedearekin. Bertan, Pako izena jartzen diote eta gizakien bizimodura ohitu egiten da. Egun batean, etxeko umeekin ikastolara joaten da eta patio orduan hamaiketakoak lapurtzem hasten da. Momentu hartatik aurrera, herrian zehar bihurrikeriak egiten ibiltzen da. San Juan gauan erre egiten da eta udan lagunekin jolastu ezingo den arren, badaki etxean sendatuko dutela. |
| Adiskidetasuna eta animalien zaintza | |

| Mendiguren, X. (1991). *Puxkin*. Elkar | Nº 9 |
|---|---|
| <br>A ikastetxea (publikoa).<br>4. maila. Euskara | Lucilak aitaren lanbideari buruzko idazlan bat egin behar du, baina bere ikaskideek bere aitaren lanbideari buruz barre egin dute emakumeen lana dela uste dutelako: etxekoandrea da. Ondorioz, Lucilak bere aita etxekoandrea izateagatik lortu izan dituen esperientziak gogoratu ditu eta bi ondorio atera ditu: etxekoandrea izatea ez dela lan erraza eta bere aitaren lanbideari esker bizipen asko izan dituela. Beraz, hori guztia bere idazlanean idatzi eta klase aurrean irakurtzen du, bere ikaskideak harrituta utziz. |
| Irudimena | |

| Mugertza, J. L. (2007). *Sorgin zibertxakurra*. Matxinsalto. Ibaizabal | Nº 10 |
|---|---|
|  A ikastetxea (publikoa). 4. maila. Euskara | Aspalditik Sorgin deituriko txakurra oso triste dago eta bere familiak gaixorik dagoela uste du. Albaitariak pilula bat errezetatu arren, Sorginek triste jarraitzen du, eta bere familiak internet bidez senargai bat bilatzea erabakitzen du, agian bakarrik sentitzen delako. Horrela Sorginek Txin Txan ezagutzen du eta elkar maitemintzen dira. Aitona egurrezko etxetxo bat eraikitzen hasten da bertan bizi ahal izateko, haiek Txin Txanen familia ezagutzera Pekinera bidaiatzen duten bitartean. Txinatik Sorginen familiari argazki bat bidaltzen diotenean, bertan bi txakurkume izan dituztela ikusten dute, eta, beraz, aitona haientzat eraiki duen etxea handitzen hasten da. |
| Familia, maitasuna, animalien zaintza. | |

| Bargos, A. (2008). *Salvad a las ballenas*. Cueva Cadabra. Beta III Milenio | Nº 11 |
|---|---|
|  A ikastetxea (publikoa). 3. maila. Gaztelania | Lagun talde batek oporretan itsasontzi zahar bat konpontzea erabaki du. Bertan, itsasoko animaliek pertsonei jaten ematen dietela ikasten dute, eta elikatzeko behar den guztia arrantzatu besterik ez dela egin behar ondorioztatzen dute. Egun batean, marinel bat haserre iristen da portura, itsaso zabalean balea-ontzi batzuk arpoiekin baleak hiltzen ari baitira, bereizi gabe eta diruagatik. Lagun talde honek baleak defendatzera joatea erabaki du. Horrela, konpondu duten itsasontzian, ekologisten eta baleen laguntzarekin, ehiztariak garaitzea eta baleak salbatzea lortzen dute. |
| Adiskidetasuna, lankidetza, animalien zaintza, naturarekiko errespetua eta kontsumo kontzientea. | |

| Dahl, R. (1982). *El Superzorro.* Alfaguara | Nº 12 eta 52 |
|---|---|
| <br><br>A ikastetxea (publikoa).<br>4. maila. Gaztelania eta C ikastetxea (itunpekoa).<br>4.maila. Euskara (*Super-azeri*) | Zuhaitz baten ertzean azeri bat bizi zen bere emaztearekin eta 4 seme-alabekin. Goseak zeudenean, azeria herriko hiru baserri handienetara hurbiltzen zen eta bizirik irauteko behar zutena hartzen zuen. Egun batean, hiru nekazariak haserretu egin ziren eta azeria ehizatzera joan ziren, baina azeriak lurra zulatu eta tunelak egin zituen hiru baserrien azpiraino, gero estaltzen zuen zulo bat irekiz eta ikusi gabe behar zutena hartuz. Tunelaren hasieran baserritarrak azeriaren zain gelditu zirenez, azeriak eta bere familiak han bizitzera geratzea erabaki zuten, lurpeko beste animaliekin, eta gose zirenean tuneletatik baserrietara joaten ziren. |
| Familia, laguntza, bizikidetasuna eta animaliekiko errespetua. | |
| kontrabalioa: matxismoa. | |

| Bargos, A. (2005). *Un dumper en apuros*. Cueva Cadabra. Beta III Milenio | Nº 13 |
|---|---|
| <br><br>A ikastetxea (publikoa).<br>3. maila. Gaztelania | Egun batean, udalak dumper zahar bat txikitzea erabaki zuen, bizilagunen kexa ugari baitzituzten zarata handia egiten zuelako eta ke beltza botatzen zuelako. Orduan Mikelek eta bere lagunek desegitetik atera eta orube abandonatu batera eraman zuten. Dumper-aren gidariaren laguntzarekin ibilgailua konpondu eta orubea garbitu zuten. Azkenean, jendeak botatzen zuen guztia jasotzeko erabiliko zutela, eta horrela gauzei bigarren aukera bat ematea lortuko zutela erabaki zuten. |
| Adiskidetasuna, lankidetza, ingurumena zaintzea eta birziklapena. | |

| López, C. eta Salmerón, C. (2012). *Goardalurrra*. Ziaboga. Bruño | Nº 14 |
|---|---|
|  <br>B ikastetxea (publikoa).<br>3. maila. Euskara | Dani beti esna amets egiten duen ume bat da. Egun batean, matematika-klasean zegoela, aterki bati helduta irten zen hegan, eta bidaia bati ekin zion, non Omar eta krokodilo-kume bat ezagutu zituen. Lapur batzuek, espioia eta sorgina zirela pentsatuz, Omar eta Dani bahitu zituzten eta galderak egiten hasi zitzaizkien. Galdera horiek batuketa eta kenketa matematikoetan bihurtu ziren, eta bat-batean Dani matematika klasean esnatu zen. Hala ere, bere ametsean ezagutu zituen pertsonaiak hor zeuden, bere betiko klasean. Lapurrek leihotik ihes egin zuten, eta Daniri lagun berriekin geratzea gustatuko balitzaio ere, kokriloa hazi egingo zen egunen batean, eta Omarrek bere txalupara itzuli behar zuen. Danik amets bat sortzen du eta horrela bere lagunak bere lurraldera itzultzen laguntzen ditu. Honekin, berriro ikusi nahi dituenean, bakarrik amets egin beharko du. |
| Irudimena. | |

| Company, M. (2010). *Lehoiaren hortzak*. Ziaboga. Bruño | Nº 15 |
|---|---|
|  <br>B ikastetxea (publikoa).<br>3. maila. Euskara | Jerbasiok denbora asko pasatzen du osaba-izebekin eta haien etxean logela bat du. Baina han arazo izaten du: gelan bi elefante-buru disekatu daude eta beldur handia ematen diote. Egun batean, osaba lehoi bat nola hil zuen kontatzen ari zen, eta lehoi horren hortzak disekatutako elefante baten ahoan gordeta zituela aipatu zuen. Jerbasiok aurretik handik atera zituen, eta gau hartan berriro bere lekuan jarri nahi izan zituen osabak bertan ez zeudela ez ikusteko helburuarekin. Horretan zebilenean, lefantearen buruan sartu zen. Han Palmira izeneko emakume batekin egin zuen topo, eta honek hortzik gabeko lehoiraino eraman zuen, hortzak bere jabeari itzuli ahal izateko. Jerbasiok esan zuen lehoi hori hilda zegoela pentsatzen zuela, eta Palmirak bere sekretua kontatu zion: estrategia bat prestatu zuten, non ehiztari batek animalia bat hiltzen zuen |

| | |
|---|---|
| | bakoitzean, animalia belarrekin sendatzen zuten, eta bere gorputza antzeko beste bategatik aldatzen zuten. Jerbasio jolasean aritu zen animalia horiekin guztiekin, baita bere gelan zegoen buruak ordezkatzen zuen benetako elefantearekin ere. Hurrengo goizean osaba-izeben etxera itzuli zen, baina oraingoan ez zien beldurrik bertan dauden elefanteei. |
| Balentasuna, irudimena eta animalien zaintza. | |

| Gómez, A. (1996). *Euri-ttantta*. Ziaboga. Bruño | Nº 16 |
|---|---|
| <br>B ikastetxea (publikoa).<br>3. maila. Euskara | Egun batean, hodei erraldoi batek hiriko zerua estaltzen du. Lehen ur tanta kaleko txakur baten gainean erortzen da. Bigarrena, zuhaitz batean. Hirugarrena, On Baxilio fruta-saltzaileari erortzen zaio. Laugarrena, leiho bateko kristalean jausten da. Leiho hori aurkitzen den gelan haur bat dago negarrez. Leihoko tantari ez zaio gustatzen beste tanta bat (malkoa) umearen masailean ikustea, eta, horregatik, gorputzarekin mugimenduak egitea erabaki du, leihoan "irria" idazteko. Haurra animatzea lortzen du eta tantak gelan "euri-ttantta" izeneko liburu bat duela ikusten du. Baina hori gertatzen denerako, ez dago bere gorputzaren arrastorik geratzen eta lurrun bihurtzen da. |
| Enpatia. | |

| Irusta, A. (1999). *Han-hemengo ipuinak*. Matxinsalto. Ibaizabal | Nº 17 |
|---|---|
| <br>B ikastetxea (publikoa).<br>4. maila. Euskara | Liburu honek bidaia batean murgiltzen du irakurlea. Bertan, hainbat pertsonak beren bizilekuko istorio zaharrak kontatzen dituzte. Magreben (Afrika), oilasko erdiren ipuina kontatzen dute. Kanadako mendebaldeko uhartetxo batean, Eguzkiaren Semearen elezaharra. Kanadako beste alde batean, azalgorria indioen tribuan, artoaren jatorriaren mitoa azaltzen dute. Mexikon, untxiek belarri luzeak zergatik dituzten aipatzen da. El Salvadorren, giltza magikoaren kondaira ezagutu daiteke. Brasilen, ostadarraren sorrerari buruz hitz egiten da. Amaitzeko, Afrikako iparraldean, |

| | |
|---|---|
| | bereber bati eta arrotz bati buruzko istorio dibertigarri bat kontatzen da. |
| Ahalegina, maitasuna, ongia egitea, kultura, irudimena eta umorea. | |

| Ormazabal, J. (2002). *Kotti*. Xaguxar. Elkar | Nº 18 |
|---|---|
| <br>B ikastetxea (publikoa).<br>4. maila. Euskara | Zeru-txiki herrian bi pertsona bakarrik bizi ziren: Jeolimo eta Anikaxia. Egun batean, bikote honek seme bat izan zuen, Kotti deitu zutena. Kotti bere gurasoek hezia hazten da inor bizi ez den eta noizean behin bisitak jasotzen dituzten herri horretan. Egun batean, gurasoak arrantzara joan zirenean, Kotti zuhaitz batera igo zen. Bat-batean, zuhaitz hau txori talde batek erauzi zuen eta hegan eramaten zuten. Kotti hiri batean esnatzen da eta bertan Tximanol ezagutzen du, familiarik ez duena eta kalean bizi dena. Kalean dirua eskatzen hasten dira elkarrekin, eta egun batean kamioi batean sartzea erabakitzen dute, beste herri batera joateko dirua eskatzera. Bidaian zehar, gizon zahar bat kamioian sartu zen bizikleta batekin. Txomin Perurena txirrindularia zen, bizikletan ibiltzeko ezindua, bizikleta gazteei oparitzea erabakitzen zuena. Horiek ikuskizun bat antolatu zuten bizikletan atzera ibiliz, eta handik igarotzen ziren hiritar guztiak harritu zituzten. Haien artean Txantxulario zegoen, soinu-jotzailea zena eta Kottiren herritik noizbait ibiltzen zena. Etxera eramaten zituen bi umeak, Kottiri soinu-jotzailearen ofizioa irakatsi zion eta astoa utzi zien herrira itzul zitezen. Han, familia berriz elkartzen da eta Kottik bere arreba Kattalin ezagutzen du. Orain Zeru-berrik biztanle berri bat du: Tximanol. |
| Balentasuna, adiskidetasuna familia eta laguntza. | |

| Zubeldia, I, (2003). *Txikiak baina bixkorrak*. Matxinsalto. Ibaizabal | Nº 19 |
|---|---|
| <br>B ikastetxea (publikoa).<br>4. maila. Euskara | Egireun galtzagorriak hanka apurtu zuen eta sendatzen zen bitartean, irakurtzen zein idazten ikasi zuen. Beraz, bere sendagile Gorritik proposamen bat egin zion: bere istorioak liburu batean azaltzea Horrela, Egireunek bere bizitza liburu batean laburbildu zuen: amonaren kontakizunen artean igarotako hautzaroa, galtzagorrien bizimodua zein ohiturak, lanarekiko grina... Liburua bukatzean, Gorriti sendagileak proposamen berri bat egin zion: Egireunek medikuntza ikasketak egingo ditu galtzagorrien lehenengo sendagilea bihurtzeko helburuarekin. |
| Iraunkortasuna, ahalegina, familia, laguntza eta ontasuna. | |

| Mendo, M.A. (2006). *Vacaciones en la cocina*. Altamar. Bruño | Nº 20 |
|---|---|
| <br>B ikastetxea (publikoa).<br>3. maila. Gaztelania | Liburu honetan zehar istorio ezberdinak kontatzen dira. Hasteko, familia bat oporretan joango da, eta etxetresna elektrikoak oso pozik jartzen dira, horrek haiek ere oporretan egongo direla esan nahi duelako, eta hala jakinaraziko diote familiako haur txikiari, haiekin hitz egin dezakeen bakarra baita. Jarraitzeko, neskato bat gustatzen ez zaion guztia hustu dezakeela konturatzen da, munstro itxurako flotagailua, bere ogitartekoa... Bestalde, herri batean denak erregeak eta erreginak ziren, baina inor agindu ezin zutenez oso aspertuta bizi ziren. Egun batean, galduta zebilen gizon bat agertu zen eta guztiek honi agindu nahi zioten. Gizonak ihes egitea erabaki zuen eta hiritarrek, alde egitea nahi ez zutenez, bera errege egingo zutela biestu zioten, baina gizonak azkenean ihes egin zuen denak erotuta zeudela pentsatuz. Azkenik, pintore bat kalean airea margotu zezakeela konturatzean, beraz, itsasoa arrainekin margotzen du eta bertatik pasatzen zirenei ere margotzea eskaini zien. Azkenean, salatu egiten zuten eta margotutakoa garbitu behar izan zuen, marrazkiak airean hegaldatzen ziren bitartean. |
| Irudimena. | |

<table>
<tr><td colspan="2">Wolf, K. P. (1992). *¡No podéis hacer esto conmigo!*. El barco de vapor, azul. Sm — Nº 21</td></tr>
<tr><td>

B ikastetxea (publikoa).<br>3. maila. Gaztelania</td><td>Monik egun txarra izan du. Klasean errieta egiten diote gozokiak jateagatik, nota txarra atera du, eta gainera Max deituriko mutil batek besteak eta batez ere neskatoak sufriarazten ditu. Bere nota txarragatik etxean errieta egitea nahi ez zuenez, eta etxean desio bat zor ziotenez, asteburu hartan ama eta aita haurrak eta neba eta biak gurasoak izango zirela pentsatu zuen. Hala egin zuten, baina Moni eta bere anaia konturatu ziren zein zaila den guraso izatea eta gurasoak, berriz seme-alabek haien arazoak dituztela ondorioztatzen dute. Honekin, gurasoek Max alaba mehatxatzen ari dela jakiten dute, eta orduan amak eskarmentu handia ematen dio.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Elikadura ona eta familia.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Kontrabalioa: Matxismoa.</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td colspan="2">Perera, H. (2007). *Mumú*. Altamar. Bruño — Nº 22</td></tr>
<tr><td>

B ikastetxea (publikoa).<br>3. maila. Gaztelania</td><td>Liburu honek Mumu elefantearen bizitza jaiotzen denetik heldua den arte azaltzen du. Txikitatik hamaika gauza ikasi behar ditu taldearen buru bihurtu ahal izateko eta prozesu horretan zenbait abenturatan murgiltzen da. Egun batean, gizaki batek bere aita hiltzen du bere letaginak saltzeko xedearekin. Mumuk gizakiak elefanteak ehizatzeko instalatzen ari direla jakiten duenean, taldea bildu eta gizakien kanpaldia suntsitzen dute. Une horretan, haur babesgabe bat ikusi eta salbatzea erabakitzen du. Haur horren aitak elefanteak ehiztariek aurkitu gabe lasai bizi daitezkeen leku batera eramaten ditu. Une horretan, Mumu gizakiak eta elefanteak alderdi batean berdinak direla konturatzen da: seme-alabenganako maitasuna.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Gainditzea, familia, maitasuna, laguntza, errukia, lankidetza, lagunkidetasuna eta animaliekiko errespetua.</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td>Sanjuán, E. (2007). Simón, Simón. Altamar. Bruño</td><td>Nº 23 eta 70</td></tr>
<tr><td>

B ikastetxea (publikoa).<br>4. maila. Gaztelania eta D ikastetxea (itunpekoa).<br>4.maila. Gaztelania</td><td>Simón nortasun handiko ume zoriontsua da. Berriz, gehiegizko irudimena du eta horrek oso egokiak ez diren ideiak izatea eragiten du: bere itzala galdu zuen eta hau bihurrikeriak egitera joan zen; irakasle bati gaileta bat eman zion eta honek oso ona zegoela esan zionean, Simonek bere txakurrak ere gustuko zituela erantzun zion; eskolara animaliak eraman behar zituztenean, berak arkakusoak eramatea erabaki zuen eta ikastetxe osoa desinfektatu behar izan zuten; eskolara katu bat eraman zuen eta hau ikaratu zenean, irakasleari ileordea kendu zion…</td></tr>
<tr><td colspan="2">Familia, irudimena eta umorea.</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td>Muñoz, J. (2003). Fray Perico y su borrico. El barco de vapor. Sm</td><td>Nº 24 eta 73</td></tr>
<tr><td>

B ikastetxea (publikoa).<br>4. maila. Gaztelania eta D ikastetxea (itunpekoa).<br>4. maila. Gaztelania</td><td>Perikok fraide izan nahi du eta horregatik komentu batera joatea erabakitzen du. Han lan desberdinak ematen dizkiote, eta berak, borondate ona duen arren, beti hanka sartzen du. Bere baldarkeriak ohikoak diren arren, gainerako fraideek maitasun handia hartzen diote zeinen onbera den ikusita, Periko beti baitago denei laguntzeko prest. Komentura iritsi zenetik, leku hotza izateari utzi dio leku alaia izateko.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Senidetasuna, laguntza, ontasuna, karitatea, fedea, umorea, lankidetza, lagunartekotasuna eta animalien zaintza.</td></tr>
</table>

| Aretzaga, M. T. (2005). *Rana por un día*. Tucán, naranja. Edebé | Nº 25 |
|---|---|
|   B ikastetxea (publikoa). 4. maila. Gaztelania | Sorgin batek igel bihurtu zuen Rainer printzea bere sudurraz barre egin zuelako. Horrela, urmaeletan bizitzen egon zen printzesa batek musu eman eta berriro printze bihurtu zen arte. Hala ere, ez zen guztiz zoriontsua printzesa eta erregea haserretzen zituen zerbait zegoelako: oraindik gustatzen zitzaion euliak jatea eta urmaeletan ibiltzea. Egun batean, sorginaren bila joatea erabaki zuen honi soluzioa jartzeko helburuarekin eta sorginak botere bat eman zion: euliak jan nahi zituenean igel bihurtu ahal zen egun batez, eta nahi zuenean printze bihurtuko zen berriro. Jauregira itzultzeko bidean, igel asko ehizatzen ari zirela ohartu zen, printzesak berak nahi ez zuen beste gizon batekin konpromisoa har zezan jauregian egin behar zuten festan afaria egin zezaten. Rainer maskara batekin mozorrotuta agertu zen, eta printzesari igel bat eskaintzen dio plater batean eta hau, Rainer izango zelakoan, musu bat eman zion ihes egiten bukatu zuen igelari. Berriz, egoera hori ikusita, erregeak egun osoa igelak musukatzen ematen zuen alabak Rainer maite zuela ulertu zuen. Azkenean, erregeak bere alaba zoriontsua izatea senar arraro bat ez izatea baino garrantzitsuagoa zela ulertu zuen. |
| Maitasuna, lankidetza, tolerantzia, animalien zaintza eta kontsumo kontzientea. | |

| Ugidos, S. (2000). *Nire aita etxekoandrea da, eta zer?*. Elkar | Nº 26 |
|---|---|
|   C ikastetxea (itunpekoa). 3. maila. Euskara | Lucilak aitaren lanbideari buruzko idazlan bat egin behar du, baina bere ikaskideek bere aitaren lanbideari buruz barre egin dute emakumeen lana dela uste dutelako: etxekoandrea da. Ondorioz, Lucilak bere aita etxekoandrea izateagatik lortu izan dituen esperientziak gogoratu ditu eta bi ondorio atera ditu: etxekoandrea izatea ez dela lan erraza eta bere aitaren lanbideari esker bizipen asko izan dituela. Beraz, hori guztia bere idazlanean idatzi eta klase aurrean irakurtzen du, bere ikaskideak harrituta utziz. |
| Familia eta berdintasuna. | |

<table>
<tr><th colspan="2">Lertxundi, A. (2000). Nik erremerre hitz egiten dut ,eta zer?. Elkar — Nº 27</th></tr>
<tr><td>

C ikastetxea (itunpekoa).<br>3. maila. Euskara</td><td>Beto erremerre da. Logopedara joan zenean "bere akatsa" zuzenduko zutela esan zioten eta bertan, txarto zegoen zerbait zuela bereganatu zuen. Beraz, "rr" dituzten hitz guztiaz esanahi bereko beste hitz batez ordezkatzen hasi zen. Ondorioz, hiztegi oso aberatsa eta irudimen handia garatu zuen. Egun batean, ikasle berri bat heldu zen klasera, hitz egiteko arazoak ere zituena baina honek ez zuen inolako lotsarik. Beraz, Betok ulertu du bere hitz egiteko forma ez dela lotsatzeko arrazoia, lagun berri bat du eta izugarrizko irudimena eta hiztegia lortu du.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Gainditzea, berdintasuna eta errespetua.</td></tr>
</table>

<table>
<tr><th colspan="2">Egaña, A. (2000). Niri ez zait futbola gustatzen, eta zer?. Elkar — Nº 28</th></tr>
<tr><td>

C ikastetxea (itunpekoa).<br>3. maila. Euskara</td><td>Protagonistak (mutila) ez du futbola gustuko. Bere aitari eta ikaskideei, berriz, ikaragarri gustatzen zaie. Aitak ez du ondo eramaten semeak fultbola gustoko ez izatea eta orain beste alaba bat izango duela, pozik dabil berari futbola gustatu ahal zaiolako, baina ez du konfiantza handirik neska bat delako. Protagonistari animaliak gustatzen zaizkio eta zomorroen bilduma egiten du. Berriz, ardiak ez ditu gustuko, izan ere, beti doaz elkarrekin eta guztiek gauza bera egiten dute, bere ingurukoak bezala. Bera ardi beltz bat izango litzatekeela uste du.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Nortasuna eta berdintasuna.</td></tr>
<tr><td colspan="2">kontrabalioa: Matxismoa.</td></tr>
</table>

| Torras, M. (2001). *Nire arreba Aixa*. Kuku. Elkar | Nº 29 |
|---|---|
| <br>C ikastetxea (itunpekoa).<br>3. maila. Euskara | Arnauk idazlan bat egin behar du klaserako eta bere arreba Aixari buruz egitea erabakitzen du. Bertan, bere familiaren eta bereziki Afrikan adoptatu zuten arrebaren istorioa azaltzen du. Aixari mina bat lehertu zitzaion eta, ondorioz, hanka bat moztu behar izan zioten. |
| Gainditzea, familia eta berdintasuna. | |

| Urkiza, A. (2001). *Betaurrekoak ditut, eta zer?*. Elkar | Nº 30 |
|---|---|
| <br>C ikastetxea<br>(itunpekoa).<br>3. maila. Euskara | Mirenek ikastola hasi zuenean begiak okertzen hasi zen eta hipermetropia diagnostikatu zioten. Hartatik, betaurrekoak daramatza. Ikaskideak horren ondorioz zirikatzen zuten eta Mirenek bere betaurrekoak gorrotatzen zituen. Baina hori azkenean aldatu egin zen: txango batean betaurrekoekin sua egitea lortu zuen eta ikastolako mutil ederrenak bere betaurrekoak gustuko zituela esan zion. Hortik aurrera, Mirenek betaurrekoak eramatea maite du |
| Onarpena eta gainditzea. | |
| Kontrabalioa: Matxismoa. | |

<table>
<tr><td colspan="2">Santisteban, k. (1995). Kutuna tuntuna. Miru. Elkar     Nº 31</td></tr>
<tr><td>

C ikastetxea<br>(itunpekoa).<br>3. maila. Euskara</td><td>Maiaren gurasoek munduko neskarik ederrena eta azkarrena dela uste dute. Hazten doanean, ez duela jolasean denbora galdu behar erabakitzen dute, izan ere, ikasten eman beharko du denbora guztia, daukan talentua aprobetxatzeko. Maia oso triste egoten hasten da eta egun batean leihotik ihes egiten du ikaskideekin jolasteko. Primeran pasatzen du, eta azkenean lagun baten etxera joaten da lotara; beraz, etxeko erantzungailuan mezu bat uzten du gurasoei non lo egingo duen esateko. Hurrengo goizean, egunkarian gurasoek oso azkarra izateagatik bahitu egin dutela iragarri dutela ikusten du. Gaizki-ulertua konpontzen dutenean, Maiaren gurasoak lehenengo gauza alabaren ongizatea dela eta asko maite dutela konturatzen dira.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Gogoeta, adiskidetasuna, maitasuna eta askatasuna.</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td colspan="2">Iturbe, A. (2001). Beldurtia naiz, eta zer?. Elkar     Nº 32</td></tr>
<tr><td>

C ikastetxea (itunpekoa).<br>3. maila. Euskara</td><td>Protagonista guztiaren beldur zen, eta ikaskideek, berriz, unean uneko gauzei baino ez zioten beldurra. Ondorioz, ikaskideek etengabe barre egiten zioten. Egun batean, ez zen patiora jaitsi otsoak zeudela esan ziotelako, eta berarekin oso maitekorra izan zen sorgin batekin topo egin zuen. Sorginarekin batera, bere kideak izutzeko plan bat pentsatu zuten, denek ikus zezateela denak zerbaiten beldur direla. Plana burutu eta protagonista ez beste guztiak sorginaren beldur zirela ikusi ondoren, klasean argi geratu zen guztiak ezezagunaren beldur direla.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Gainditzea.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Kontrabalioa: Matxismoa.</td></tr>
</table>

| Olaizola, J.M. (2000). *Kikik koko nahi du*. Kuku. Elkar | Nº 33 |
|---|---|
| <br>C ikastetxea (itunpekoa). 3. maila. Euskara | Bere loroarekin bizi zen aitona batek tren-geltoki batean egiten zuen lan, tren-gidariari trena berriro martxan jartzeko baimena emateko arduradun gisa. Egun batean, loroak trena martxan jar daitekeela iragartzen zuen txilibituaren hotsa atera zuen eta, istripurik gertatu ez bazen ere, aitona epaiketara eraman zuten. Berak makinistaren errua izan zela adierazi zuen; izan ere, loroak abiarazteko agindua eman bazuen ere, bandera gorria altxatzea ere falta zen, eta hori egin ez zuen arren, makinistak trena martxan jarri zuen. Beraz, aitona absolbitu zuten, baina hain nahigabetuta zegoenez, gaixotu egin zen. Azkenean, aitonak lan egiteari utzi dio, eta orain bera eta bere loroa alabarekin eta bilobarekin bizi dira. |
| Erantzukizuna, maitasuna, familia, lana eta animalien zaintza. | |
| Kontrabalioa: Matxismoa. | |

| Meabe, M.A. (2003). *Etxe bitan bizi naiz, eta zer?*. Elkar | Nº 34 |
|---|---|
| <br>C ikastetxea (itunpekoa). 3. maila. Euskara | Sararen gurasoak banandu egin dira. Berari horren berri emateko, berarekin hitz egiten dute, eta biek asko maite dutela baina arrazoi desberdinengatik ezin dutela elkarrekin bizi azaltzen diote. Hala ere, Sarak ez du ulertzen eta oso triste jartzen da. Gainera, egun batzuetan bere amaren etxean bizi behar du eta beste batzuetan, bere aitarenean. Psikologo batengana eramaten dute eta azkenean norbait maitatzea zoriontsuago izaten laguntzea dela ulertzen du. Beraz, garrantzitsuena gurasoek maite dutela eta une txarrek ere zerbait ona dutela ondorioztatzen du. |
| Onarpena, maitasuna, familia eta egokitzapena. | |

| Cano, H. (2003). *Itsasoa etxe barruan*. Batela. Elkar | Nº 36 |
|---|---|
|   C ikastetxea (itunpekoa). 3. maila. Euskara | Jorge itsasoa maite duen umea da. Etxeko sukaldea urdinez margotuta dagoenez, itsasoa dela pentsatzen du eta han urpekaritzako betaurrekoekin sartzen da eta hormetan arrainak margotzen ditu. Egun batean, kanabera bat bota zuen kalera, eta olagarroa zela pentsatuz, txano bat kendu zion andre bati. Bere guraso haserretuek sukaldea horiz margotzea erabakitzen dute eta orduan Jorgek itsasoa lehortu dela eta orain bere sukaldea basamortua dela esaten du. Beraz, bertan gameluak eta palmondoak marrazten hasi da. |
| Irudimena. | |

| Aristi, P. (2008). *Ez zait irakurtzea gustatzen, eta zer?*. Elkar | Nº 37 |
|---|---|
|   C ikastetxea (itunpekoa). 3. maila. Euskara | Nemesiok irakurketa gorrotatzen du. Bere ingurunean irakurtzen duten guztiek pertsona aspergarretan bihurtu dira. Berriz, bere anaiak ez du irakurketa gustuko eta moto bat eta neskalagunak ditu. Egun batean, biak motorretik jaisten dira eta ospitalean daudenean, andereñoak ipuin bat idazteko eskatzen dio. Ondorioz, idaztea gustatzen zaiola deskubritzen du. |
| Nortasuna. | |
| Kontrabalioa: Matxismoa. | |

<table>
<tr><td colspan="2">Mendizabal, A. (2010). Lotsatia naiz, eta zer?. Elkar    Nº 38</td></tr>
<tr><td>

C ikastetxea (itunpekoa).<br>3. maila. Euskara</td><td>Eki mutil oso lotsatia da eta, gainera, duela gutxi aparatua jarri diote hortzetan. Gutxi falta da bere urtebetetzea ospatzeko eta duela asko gustoko duen neska, Lorea, gonbidatu nahi du. Berriz, lotsa handia ematen dio. Saiakera desberdinen ostean, Loreak urtebetetzera joan nahi duela aipatzen dio eta horri esker Ekik gonbidatu egiten du. Momentu horretan aparatua izateagatik lotsa galtzen du.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Gainditzea.</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td colspan="2">Uribe, K. (2004). Ez naiz ilehoria, eta zer?. Elkar    Nº 39</td></tr>
<tr><td>

C ikastetxea (itunpekoa).<br>3. maila. Euskara</td><td>Amira duela gutxi joan da bere herrialdetik Gasteizera bizitzera. Ikastolan ez ditu lagunik eta arraro sentitzen da. Bere herrialdean bizi den izebarekin karten bitartez hitz egiten du. Egun batean, marrazki bat egin behar izan zuten klasean baina Amirak ez zuen hau amaitzeko denborarik izan, izan ere, txoriak marraztea falta zitzaion. Irakasleak txoriak falta zitzaizkiola aipatu zion eta Amirak horri buruzko aipamen barragarria egin zuen. Egun horretan, bi ikaskide gerturatu zitzaizkion patioan eta Amirak izebari idazten ari zitzaion gutunaren letra nabarmengarria iruditu zitzaien. Egun horretatik aurrera, guztiek daramate haien izena arabieraz idatzita haien karpetetan. Orain Amirak ondorioztatu du Gasteizen oso ilehori gutxi daudela eta oraindik ilehoria izan nahi duen arren, nagusitan tintatzeko denbora nahikoa izango duela uste du.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Berdintasuna eta integrazioa.</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td colspan="2">Iturbe, A. (2003). Norak suhiltzaile izan nahi du. Kuku. Elkar     Nº 40</td></tr>
<tr><td>

C ikastetxea (itunpekoa).<br>3. maila. Euskara</td>
<td>Gaztetan suhiltzailea izandako osaba Tomaxek suhiltzaile kamioi bat oparitu zion Norari eta, hortik aurrera, nagusitan suhiltzaile izan nahi duela argi izan du. Bere familian inori ez zitzaion ondo iruditzen, bakarrik osaba Tomaxeri. Berriz, egun batean iritziz aldatzen du eta Noraren ametsa tontarekia bat dela aipatzen du. Beraz, Norak amarekin hitz egitea erabakitzen du eta honek osabaren istorioa azaltzen dio: bere emaztea eta seme-alabak sute batean hil ziren. Bere istorio familiarra orain ezagutzen duen arren, Norak argi du nagusitan suhiltzailea izango dela.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Iraunkortasuna, gainditzea eta itxaropena.</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td colspan="2">Kazabon, A. (2015). Beñaten eskutitzak. Matxinsalto. Ibaizabal     Nº 41</td></tr>
<tr><td>

C ikastetxea (itunpekoa).<br>3. maila. Euskara</td>
<td>Beñatek egunero eskutitzak idazten ditu. Bertan, egunean gertatutako gauza desberdinei buruz idazten du, beti pertsona zehatz bati zuzenduta. Berriz, Beñatek ez zituen eskutitzak bidaltzen, bere logelan gordetzen zituen. Egun batean, gurasoek eskutitzak aurkitu eta irakurri zituzten. Beñat horretaz jabetu zen eta izugarri haserretu zen. Gurasoek eskutitzak zuzendutako pertsonei bidaltzea proposatu zioten eta honi ideia ona iruditzen zitzaion. Honekin, eskutitzen erantzunak jasotzen hasi zen. Horrela, Beñaten inguruko gai desberdinak tratatzen dira: ez zaio txirula jotzea gustatzen, ez zaio gustatzen jantokian bazkaltzea, bere lagun Maialenekin haserretu da hamaiketakoa eman ez diolako, ikaskide batekin arazoak izan dituzte...</td></tr>
<tr><td colspan="2">Adiskidetasuna, familia eta barkamena.</td></tr>
</table>

| Landa, M. (2000). *Sorgina eta maisua*. Kuku. Elkar | Nº 42 |
|---|---|
|   C ikastetxea (itunpekoa).<br>3. maila. Euskara | Erdipurdi sorgina oso kaskarra izan zen sorgin-eskolan. Haurrak suntsitzeko agintzen ziotenean, saiatu arren, irakasleak txanpain botilan bihurtzea besterik ez zuen lortzen. Egun batean, eskola batera joan zen eta Kerman irakaslea aurkitu zuen Hansel eta Gretelen ipuina haurrei kontatzen. Kermanek egunak eta egunak behar izan zituenez ipuina kontatzeko, sorginak ezin izan zuen botila bihurtu, ipuina amaitu zenerako berataz maitemindu egin baitzen. Sorginak irakaslea izango zela erabaki zuen eta azkenean Kermanekin ezkondu zen. Gainera, hauts magiko batzuen bidez botilak berriro irakasle bihurtu zituen. |
| Maitasuna eta irudimena. | |

| Ormazabal, J. (2000). *Gorritxo eta Beltxiko.* Kuku. Elkar | Nº 43 |
|---|---|
|   C ikastetxea (itunpekoa).<br>3. maila. Euskara | Inurri beltz batek, monotoniaz aspertuta, bera bakarrik abentura bati ekitea erabakitzen du. Han inurri gorri bat ezagutzen du, beltzak eta gorriak ondo eramaten ez diren arren, lagun handiak bihurtzen direnak. Abentura elkarrekin jarraitzen dute, baina halako batean inurri beltza galdu egiten da eta gorria, beste inurri beltz batzuekin batera, bere bila joaten da. Bi inurriek elkarrekin eta maiteminduta amaitzen dute. |
| Balentasuna, adiskidetasuna, maitasuna, lankidetza eta lagunartekotasuna. | |

| Gómez, A. (1999). *Ni eta nire metroa*. Miru. Elkar | Nº 44 |
|---|---|
|   C ikastetxea (itunpekoa). 3. maila. Euskara | Haur bat dibertitzen da bere metroarekin ikusten duen guztia neurtzen. Gurasoak kezkatuta daude berarekin, eta medikuak ezer gertatzen ez zaiola esan arren, beti sartzen da arazoetan: teilatura igo zen dena neurtzera, eta jendeak ikusi zuenean suhiltzaileei deitu zieten, eta jaitsi egin behar izan zuten; eskale baten ondoan jarri zen diru eske, eta poliziak etxera eraman zuen, eta ia gurasoak salatu zituen eskean ibili ezin zelako; dortoka bat erosi zioten, eta eskailerak igo eta jaisteko kutxa bat jarri zion, aitak horrekin behaztopa egin eta hanka hautsi zuen… |
| Familia, maitasuna eta umorea. | |

| Fernández, O. (2016). *Txokolatezko pastela*. Matxinsalto. Ibaizabal | Nº 46 |
|---|---|
|   C ikastetxea (itunpekoa). 4. maila. Euskara | Xiberren asteko egunik gogokoena astelehena da. Izan ere, nahiz eta zeliakoa izan eta bere janaria izan, egun horretan txokolatezko pastela jaten dute eskolan. Xiberren eskolako lagunak gaixotzen hasi ziren eta Xiberrek sukaldariak pastela pozoitu duela pentsatzen hasi zen. Egun batean, sukaldean sartu eta txokolatean hautsak nola botatzen zituen ikusiko zuen. Orduan, jangelara joan eta ozenki inork pastela ez jateko agindu zuen, sukaldaria pozoitzen ari zitzaielako. Hala ere, irakasleek hori egia ez zela mantendu zuten eta ikasleen artean gastroenteritisa kutsatu zela azaldu zuten. Gertakaria ahaztuta ere, Xiberrek oraindik sukaldariari buruzko susmo txarra du. |
| Osasuna, adiskidetasuna, ikerketa eta lankidetza. | |

<table>
<tr><td colspan="2">Arrizabalaga, M. (1998). Aitona Blas eta iratxoak. Miru. Elkar — Nº 47</td></tr>
<tr><td>

C ikastetxea (itunpekoa).<br>4. maila. Euskara</td><td>Ekhi gurasoekin, arrebarekin eta Blas aitonarekin bizi zen baserrian. Ekhiri asko gustatzen zitzaion aitonarekin mendira joatea eta honek istorioak kontatzea. Egun batean, mendira joan ziren eta aitonak iratxoak existitzen direla, baserritarrei laguntzen dietela eta gauez iturrira ateratzen direla kontatu zion. Hurrengo goizean, aitona hil egin zen. Familiak baserria utzi eta herrira jaistea erabaki zuen, beraz, gau hartan, Ekhi iturrira joan eta iratxoekin hitz egin zuen, eta aitonaren mezu bat eman zioten: aitona beti egongo da han, baserrian. Beraz, Ekhi herrira familiarekin bizitzera joan zen, baina ahal duen guztietan mendira eta iturrira joaten da, horrela aitonarengandik hurbil sentitzen da eta urte batzuk barru, ahal duenean, baserrira bizitzera joango dela agintzen dio bere buruari.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Gainditzea, iraunkortasuna, familia, maitasuna, laguntza, irudimena eta naturarekiko errespetua.</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td colspan="2">Sagarzazu, P. (1998). Jon txikiren abenturak. Miru. Elkar — Nº 48</td></tr>
<tr><td>

C ikastetxea (itunpekoa).<br>4. maila. Euskara</td><td>Jon gaixorik dago eta ohean geratu behar da, baina bere lagunak bisitan etortzen zaizkio. Bat-batean ahots bat entzuten dute eta Jonen logelan dagoen koadro batean marraztuta dagoen bufanda duen neska dela ikusten dute. Honek koadroan sartzera gonbidatzen ditu: neguko auzoa bisitatzen dute, gero udaberriko auzora eramaten ditu, ondoren udako auzora, non Jonen txakurra bizitzera geratzen den eta, azkenik, udazkeneko auzora joaten dira. Eroritako hostoekin jolasean ari direnean, haizea altxatzen da, hegan egitea eginarazten duena. Gero, haizeak putz egiteari utzi eta lurrera erortzen dira. Kolpe handia hartu duten arren, Jon oso pozik dago han bere txakurra aurkitzen duelako, udako auzoko piratengandik ihes egin duena. Azkenik, Jonen logelara itzultzen dira.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Osasuna, adiskidetasuna, irudimena, naturarekiko errespetua eta animalien zaintza.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Kontrabalioa: Matxismoa.</td></tr>
</table>

| Ballaz, J. (1999). *Pareta zuloa*. Muru. Elkar | Nº 49 |
|---|---|
| <br>C ikastetxea (itunpekoa).<br>4. maila. Euskara | Celia eta Delio elkar ezagutzen ez zuten bi ume dira, baina biek uda osoa eman behar zuten etxeko gela batean sartuta, gurasoek egun osoa lan egiten baitzeuden. Asko aspertzen ziren eta bakarrik sentitzen ziren. Egun batean, Deliok paretan kolpe bat jo zuen, eta beste etxeko horman Celiak kolpea itzuli zion. Orduan Delio bere horman zulo bat egiten hasi zen beste aldean nor zegoen ikusteko. Azkenean, Deliok zuloarekin Celiaren gelaraino iristea lortu zuen eta orain biak zoriontsu daude, une horretatik aurrera ez direlako bakarrik sentituko, lagun bat izango baitute bere gurasoak lanean ari diren bitartean elkarrekin egoteko. |
| Adiskidetasuna eta konpainia. | |
| Kontrabaloia: Matxismoa. | |

| Atxaga, B. (1996). *Xola eta basurdeak*. Holaxe bizi da Xola  Erein | Nº 50 |
|---|---|
| <br>C ikastetxea (itunpekoa).<br>4. maila. Euskara | Grogo jauna atsekabetuta zegoen, basurdeak ehizatzera joan behar zelako eta beldur handia zien. Xolak, bere txakurtxoak, berarekin joatea erabaki zuen, zer animalia mota ziren jakin gabe. Ehizara iristean, Xola lehenengo ilaran jarri zen  basurdeen bila joateko, basurdeak oso basatiak izan daitezkeela eta ardi beltzen antzik ez dutela jakin arte. Horregatik, jakitean, bere hasierako ausardia desagertu egin zen, eta etxera itzuli nahi izan zuen, ehiztarien eta gainerako txakurren aurrean koldar agertzeko arriskuan zegoen arren. Grogo ere bere txakurrarekin etxera itzultzen zen. |
| Zentzutasuna, erantzukizuna eta umorea. | |

| Atxaga, B. (2015). *Xola eta lapurra*. Holaxe bizi da Xola. Erein | Nº 51 |
|---|---|
|   C ikastetxea (itunpekoa). 4. maila. Euskara | Xola txakurtxoa bere jabearekin bizi den eraikinean hainbat lapurreta antzeman dituzte. Bizilagunak detektibe batekin biltzen erabakitzen dute eta Xola ikerketaz arduratzen da, domina bat izatea nahi baitu. Detektibeak lapurrak oin handiak dituela eta etxebizitza alokatuta duen bizilagun bat izan behar duela aipatzen dio. Xola etxean dagoenean, atea nola irekitzen duten entzuten du eta sarrerarantz doanean, pailazoz mozorrotutako pertsona bat ikusten du, bere zapata handiekin. Hasieran bertatik korrika joan arren, itzuli egiten da eta zein bizilagun den asmatzen du. Azkenean poliziak atxilotzen du eta Xolari domina bat ematen diote. |
| Iraunkortasuna, ongia egitea, ikerketa, umorea. | |

| Urkixo, J. (2000). *Lur izeneko oihana*. Zubia. | Nº 53 |
|---|---|
|   C ikastetxea (itunpekoa). 4. maila. Euskara | Gau batean, bi Ilargi agertu ziren zeruan. Horietako baten tamaina handitzen hasi zen, estralurtarrez betetako espaziontzi bat zela ikusi zuten. Hauek Lurra menderatzera zetozten, izan ere, gizakiek ez zuten Lur planeta zaintzen eta haien artean ez ziren zintzoak izaten, beraz, Lurra bere gaixotasun nagusienetik (gizakia) askatzera etorri ziren. Berriz, gizakiei aukera bat ematen diete: zintzoak diren 7 gizaki aurkeztekotan, Lurretik alde egingo zuten. Zintzoak ziren gizakiak aurkitzea ezinezkoa izan zenez, Lur planetako beste bizilagunetan aurkitu zuten azken itxaropena: animaliak. Beraz, 7 animalia zintzo aurkeztu zituzten: Rudolf olagarroa, Fani jirafa, Wakan hartz emea, Gari Pirinio mendietako sarrioa, Soraia manta-arraia, Feliziana hiena eta Luna mapatxea. Azkenik, estralurtarren oiniritzia lortu zuten arren eta hauek Lurretik alde egin bazuten ere, Lur planeta oihan handi batean bihurtu zuten eta gizakiak tximinoetan bihurtu ziren. Bizitza hasietarik hastea egindako hanka sartzeak konpontzeko modu bakarra zela uste zuten estralurtarrek, beraz, gizakiei zintzoak izateko auekra berria eskaini zieten hasierara itzuliz. |

Onarpena, gainditzea, eskuzabaltasuna, barkamena, lagunartekotasuna, askatasuna. errespetua eta naturaren zaintza.

| Ossa, J. (2003). *Finlandiako ipuin eroak*. Zubia | Nº 54 |
|---|---|
|   C ikastetxea (itunpekoa). 4. maila. Euskara | Ipar-iparreko basoetan bizi ziren biztanle bitxi eta ero batzuek herri bat sortzea erabakitzen dute. Prozesuan, hainbat ideia zein arazo izaten dituzte: lehenengo etxea eraiki zutenean, etxean argia izatea nahi izan zutenean, lurrak lantzen hasi zirenean, aintzira bat zela uste zuten lore urdinen multzoen artean igeriketan ibili zirenean, gauan herrira sorginak etortzen zirela ondorioztatu zutenean, garia egiteko errota baten bila ibili zirenean, ondoko herriko errotara joaten saiatu zirenean, janarirako gatza lortzen saiatu zirenean, ogia egin nahi izan zutenean, ogiaz aspertuta arrantzan abiatu zirenean, arrain faltagatik ehizatzea erabaki zutenean, haragia zein larrua izateko hartz handi bat ehizatu nahi izan zutenean, hiriko azokara joan nahi izan zutenean, izoztutako aintzira batean aurretik galdutako orratza bilatzen aritu zirenean, gizonezkoek etxeko lanetan ibiltzen hasi zirenean, etorkizunean itsasontzi batean bihurtuko zelaren ustetan txalupa bat erosi zutenean... |
| Lagunartekotasuna eta lankidetza. | |
| Kontrabalioa: Matxismoa. | |

| Aristi, P. (1999). *Miren, Garbiñe eta sorgin baten komeriak*. Miru. Elkar | Nº 55 |
|---|---|
|   C ikastetxea (itunpekoa). 4. maila. Euskara | Garbiñe eta Miren apoak haien gurasoekin uda pasatzera joango ziren ibaira. Bidean, auto batek gurasoak hil zituen eta sorgin batek bi apo txikiak hartu zituen. Bere etxean, bi neskatxatan bihurtzen ditu eta froga bat jartzen die: neskatoak izaten jarraitu nahi badute, beti negarren dagoen Aitzol umea negar egiteari uztea lortu behar dute eta, horretarako, egun bakarra izango dute. Bestela, berriro apoetan bihurtu eta haiekin zopa bat egingo du. Garbiñe eta Mirenek Aitzolek eskatutako guztia egiten duten arren, ez dute froga gainditzen eta sorgina haien bila joaten da. Berriz, Aitzolek |

| | |
|---|---|
| | sorginari bi neskak askatzeko eskatzen dio, izan ere, haiekin dagoenean oso zoriontsu ibiltzen da. Sorginak bazekien Aitzolek lagunak behar zituela eta neskatoak beldurtu zituen arren, ez zuen hauek zopan erretzeko asmorik. Beraz, Garbiñe eta Miren Aitzolen etxean bizitzara gelditzen dira |
| Iraunkortasuna,balentasuna, adiskidetasuna eta familia. | |

| Elortza, T. (1996). *Botila baten historia.* Miru. Elkar | Nº 56 |
|---|---|
|  C ikastetxea (itunpekoa). 4. maila. Euskara | Mendizaleak ikastolako ikasleek botila bat erosi zuten jai bat ospatzeko. Ondoren, botila honetan mezu bat idatzi eta erreka batera bota zuten. Botila honek ikaragarrizko bidaia egin zuen uraren zein ilargiaren laguntzaz: erreka zeharkatu eta herri batera heldu zen, ur zikinetatik igeri egin zuen, itsasora heldu zen eta bertatik Ertamerikara heldu zen. Bidean, hainbat lagun egin zituen, haien artean Gorritxo arraina. Panamko arrantzaleek mezua jaso zuten eta bertako ikastolara eraman zuten. Hauek mezu berri bat idatzi zuten Mendizaleak ikastolako ikasleentzat. Erantzuna jaso zutenean, eskakizun bat egin zieten Panamako umeei: lehen mezua berriro uretara botatzea nahi zuten, horrela mundu osoak haien mezua irakurriko zuen eta Euskal Herria zein euskara ezagutzeko aukera izango zuten. Horrela, botila itsasoan zehar bidaiatzen gelditu zen. |
| Balentasuna, adiskidetasuna eta maitasuna. | |

<table>
<tr><td colspan="2">Alberdi, U. (2015). *Bi kobazulo*. Kuku. Elkar     Nº 57</td></tr>
<tr><td>

C ikastetxea (itunpekoa).<br>4. maila. Euskara</td><td>Aniren amonak ipuin bat kontatzen dio. Bertan, ostadarraren azpian magiarengatik babestuta bizi ziren bi bikien istorioa azaltzen zen. Lurralde hartan, euria eta eguzkia txandakatzen ziren. Berriz, egun batean bikiak haserretu egin ziren eta ostadarra desagertzearekin batera, tximista batek kobazuloa jo zuen eta sortutako horma batek lurraldea banatu egin zuen: batean beti eguraldi txarra egiten zuen eta, bestean, eguraldi ona. Denborarekin, gertakizunaren ondorioz banatu egin ziren familiak eta lagunek haien iraganeko bizitza ahaztu zuten. Hodei eta Argi lurraldearen bi tokietan bizi ziren, lehenengoa euritsuan eta bestea, berriz, eguzkitsuan. Zekitenaren arabera, bakarrik bi ume ausartek ekar zezaketen berriro ostadarra. Horretarako, bi aldeetako umeek horman gelditutako zuloa zeharkatu beharko zuten eta elkar besarkatu. Beraz, bi umeek hori egitea erabaki zuten. Hormaren ertzeetara heltzean, Hodei eta Argik zerbait sumatu zuten: betidanik ezagutzen ziren, izan ere, bikiak ziren. Bi aldeen artean zegoen malkar sakonaren erdian salto egin zuten eta amildegian elkar besarkatu zuten. Honekin, ostadarra berriro agertu eta bertatik labaindu ziren, Ostadarraren baila berriro eratuz.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Balentasuna, familia eta irudimena.</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td colspan="2">Martínez de Lezea, T. (2009). *Nur eta herensugearen tenplua*. Erein     Nº 58</td></tr>
<tr><td>
</td><td>Nur Txinara joan da gurasoekin bizitzera. Hasieran oso gogorra izan zen, bere beste senide eta lagunengandik urrun zegoelako eta gainera txineraz ezer ez zekielako. Denbora baten ondoren, hizkuntza ikasi eta lagun berriak egin zituen. Egun batean, Guo Guo lagunak, beste lagun batzuekin batera, jolas-parke batera gonbidatu zuen bere urtebetetzera. Han, oso ondo pasatzen ari ziren Guo Guo desagertu egin zela konturatzen ziren arte, eta</td></tr>
</table>

| | |
|---|---|
| C ikastetxea (itunpekoa). 4. maila. Euskara | bere bila joatea erabaki zuten. Horretarako, labirintoetara eta beste abentura askotara eramango zituen ate batetik sartu behar ziren, eta horietan enigmak argitu zituzten herensugearen bederatzi ateak ireki ahal izateko. Honen xedea haien laguna zein irteera aurkitzea zen. Azkenean, buruargitasun eta gainditze handiz, denak batera irtetea lortu zuten. |
| Gainditzea, adiskidetasuna eta lankidetza. | |
| Kontrabalioa: Sexismoa. | |

| Martínez de Lezea, T. (2009). *Nur eta oihan misteriotsua*. Erein | Nº 59 |
|---|---|
|  C ikastetxea (itunpekoa). 4. maila. Euskara | Nur hiru lagunekin eta Aritzekin, Nurren osaba, oihan misteriotsuan (aitona-amonen lorategian) gau bat igaroko dute. Zuhaitz eta belarren erdian kanpadenda muntatzen dute eta han primeran pasatzen dute natura, txori eta intsektuen artean. Dragoi hegalarien, Basajaunen… istorioak kontatzen dituzte. Goizean, altxorraren mapa baten bidez, osabak ezkutatu duen altxor bat bilatu dute: txokolatina batzuk. Gainera, katutxoak izan dituen katakume bat ezagutu dute, eta Nur eta bere lagunak haiekin jolastuko dira. |
| Adiskidetasuna, familia, berdintasuna eta naturarekiko errespetua | |

| Martínez de Lezea, T. (2008). *Nur eta irlandar gnomoa*. Erein | .Nº 60 |
|---|---|
|  C ikastetxea (itunpekoa). | Nurren amamak irlandar gnomo bat aurkitzen du zaborrean. Nurrek jakiten duenean, berehala ezagutzera joaten da. Pixkanaka lagunak egiten dira, eta Fin duela izena, Irlandatik etorri dela eta ez dakiela nola itzuli bere herrira esaten dio. Nurrek bere lagunak aurkezten dizkio, guztien artean zaintzen duten eta ondo pasarazten duten arren, Finek familia faltan botatzen du eta Irlandara itzuli nahi du. Beraz, Nurrek eta bere lagunek Irlandara itsasoratuko den itsasontzi batera eramatea |

| | |
|---|---|
| 4. maila. Euskara | lortzen dute. |
| Adiskidetasuna, laguntza eta irudimena. | |

| Kazabon, A. (2008). *Ortzadarraren azpitik*. Igelo Igela. Erein | Nº 61 |
|---|---|
|   C ikastetxea (itunpekoa). 4. maila. Euskara | Ortzadarraren ateratzen zenenan, Batixen aitonak beti bertso berdina abesten zuen. Berriz, ortzadarra oso gertu zegoenean, ez zuen abesten eta norbaitek hori egitekotan haserretu egiten zen. Aitona hil zenean, Batixek horren arrazoiari erantzuna bilatzea erabaki zuen eta, horretarako, bertsoaren letrak esaten zuena egiea erabaki zuen: ortzadarra gertu zegoenean, bertsoa abestu eta ortzadarraren beste aldera salto egin. Hori egitean, lurralde eder batera heldu zen. Bertan Usoa ezagutu zuen eta honek bere etxera itzultzeko bi bideak aurkeztu zizkion: ortzadarraren ondoan bertsoa aldatuta abestea edo Elorri txuriko mendiko leize-zulotik jauzi egin eta bide zuzena aukeratu. Lehenengoak funtzionatu ez zuela ikusita. Batixek leize-zulotik jauzi egin zuen eta bide zuzena aukeratu egin zuen. Beraz, bere etxera itzultzea lortu zuen. |
| Familia, adiskidetasuna, laguntza eta irudimena. | |

| Plaza, J. M. (2009). *El juego del universo*. Alfaguara | Nº 62 |
|---|---|
|   C ikastetxea (itunpekoa). 4. maila. Gaztelania | Etxean egonda, gauza arraroak gertatzen zaizkio Alvarori, eta beldur handia du, lagunek egin dioten txantxa bat dela esaten dioten arte. Mendira joaten dira kanpaldian, horrela gauez zerua behatu eta gero unibertsoari buruzko lan bat egin beharko dute. Zeruari begira daudenean, estralurtarrak existituko diren ala ez galdetzen dute, eta denek, Alvarok izan ezik, baietz uste dute. Gauak aurrera egin ahala, Alvarok ikaratu egiten da norbait begira dagoela pentsatzen duelako, eta estralurtarrak agian existitzen direla pentsatzen hasten da. Etxera itzuli eta lana prestatzen daudenean, informazioa biltzen dute eta izarrei, planetei eta beste astro batzuei buruz ezagutzen ez zituzten datu ugari aurkitzen dituzte. Baina beste egun batean leku berean |

| | |
|---|---|
| | kanpatzera itzultzen direnean, lau lagunetatik inork utzi ez dituen arrasto bitxi batzuk aurkitzen dituzte eta izugarri beldurtzen dira. |
| Adiskidetasuna, umorea, ikaskuntza, ikerketa, lagunartekotasuna eta naturarekiko errespetua. | |

| Frabetti, C. (2002). El misterio de los Grumos. Alfaguara | Nº 63 |
|---|---|
| <br>C ikastetxea (itunpekoa).<br>3. maila. Gaztelania | Guelmi jaio berria den grumo bat da, ñimiñoak eta baketsuak direnak eta basoan lurrean ezkutaturik bizi direnak. Pozoia azalean geratzen zaielako hartzen dute perretxiko pozoitsuen zukua, eta horrela ehizatu nahi dituzten gizakiengandik babes daitezke. Guelmiri ipuin bidez grumoen bizitzaren istorioa kontatzen diote: nola sortu ziren, nola bizi izan diren, nora doazen hiltzen diren grumoen arimak…<br>Egun batean, sua amaitzen ari zitzaien eta Guelmiren osabak herrira joateko arriskua hartzen du bertan bizi den Mikel deituriko ume baten bila joan ahal izateko, izan ere, askotan grumoei laguntza eskaintzen zien. Guelmiren ezinegonak ihes egitea eragin zuen eta osabaren atzetik joan zen laguntzeko eta kanpoaldea ikusteko xedearekin, baina ehiztari batek harrapatzea lortu zuen. Hala ere, sorgin on baten eta bere adimenaren laguntzaz ihes egitea lortu zuen. Etxera iristean, denak oso pozik jarri ziren ondo zegoela ikustean, eta beti sua nola izatea deskubritu zuelako: lupa batekin eta eguzkiarekin. |
| Adiskidetasuna, maitasuna, laguntza, irudimena, lankidetza eta naturarekiko errespetua. | |

| Cameron, A. (1996). *El lugar más bonito del mundo*. Alfaguara | Nº 64 |
|---|---|
| <br><br>C ikastetxea (itunpekoa).<br>3. maila. Gaztelania | Juan oso txikia zenean, gurasoek abandonatu egin zuten. Bere amonak zapatak garbitzen lanean jarri zuen eta horrela batu eta kentzen ikasi zuen, baina berak eskolara beste ume batzuk bezala joan nahi zuen. Orduan, zapatak garbitzen zituenean ematen zizkioten egunkariak erabilita irakurtzen ikasi zuen, eta amonak azkenean eskolara eraman zuen. Irakasleek, Juanek zuen borondate-indarra ikusita, amonari esan zioten dirurik izan ezean, haiek ikasketak ordainduko zizkiotela. Egun batean, “munduko lekurik politena” jartzen zuen kartel bat ikustean, amonak Juani esan zion burua ondo altxatuta joan zaitezkeen tokia zela hori, baina Juanek maite dituzun zein maite zaituzten pertsonak dauden tokia dela uste zuen. |
| Gainditzea, ahalegina, iraunkortasuna, familia eta maitasuna. | |

| Pescetti, L.M. (2002). *El pulpo está crudo.* Alfaguara | Nº 65 |
|---|---|
| <br><br>C ikastetxea (itunpekoa).<br>4. maila. Gaztelania | 12 ipuin dira, non gehiegikeriak egoera arraroekin, umorearekin, elkarrizketa zentzugabeekin eta hizkuntza original batekin nahasten diren: koru bat osatzen duten krokodilo batzuk, txakurrak pertsonen jabeak dira,ipuin tradizionalak nahastatzen dituen narratzaile bat, loreak jaten dituen mutil bat, bi senideen arteko gutunen zentzu bikoitza... |
| Umorea eta irudimena. | |

| Danziger, P. (1995). *Ámbar quiere buenas notas*. Alfaguara | Nº 66 |
|---|---|




C ikastetxea (itunpekoa). 4. maila. Gaztelania

Ambarrek ezin du gurasoen dibortzioa onartu eta hirurak berriro elkarrekin biziko direlakoan dago. Horregatik ez du amaren mutilaguna, Max, ezagutu nahi. Ambar haserre eta triste dago eta gaizki portatzen ari da, gainera ez ditu etxeko lanak egiten eta nota txarrak ateratzen ari da. Orduan, irakasleak aukera bat ematen dio: atzeratutako lan eta eginbehar guztiak aurkeztu ditzake. Bestalde, bere ama Max ezagutu dezan ahalegintzen da, eta berari, azkenean, ez zaio beste erremediorik geratzen. Max gustatzerik nahi ez duen arren, atsegina dela iruditzen zaio eta aita beste emakume batekin dagoela ere jakiten du. Honek ere haserretzen badu ere, azkenean nota onak ateratzen ahalegintzea erabakitzen du eta lortzen du.

Gainditzea, ahalegina, familia eta egokitzapena.

| Danziger, P. (1993). *¿Seguiremos siendo amigos?*. Alfaguara | Nº 67 |
|---|---|




C ikastetxea (itunpekoa). 4. maila. Gaztelania

Ámbar eta Justo lagun banaezinak dira, oso ondo pasatzen dute elkarrekin jokatzen eta talde ona egiten dute. Berriz, Justoren gurasoek etxea saldu dute Alabamara bizitzera joateko lan kontuengatik. Ámbar ohartzen denean oso triste jartzen da eta Justorekin horretaz hitz egin nahi du, baina badirudi honi ez diola axola. Joateko eguna iristen denean eta eskolan agur-festa bat ospatzen dutenean, Justok Ámbarri ez duela joan nahi eta oso gogorra izango dela ikastetxe berri batean hura gabe hastea aitortzen dio. Azkenean, biek elkar faltako dutela esaten dute, baina orduan beti lagunak izango direla, elkarri gutunak idatziko diotela eta udan elkar ikusiko dutela pentsatuz hobeto sentitzen direla ikusten dute.

Adiskidetasuna, familia eta afektua.

| Danziger, P. (1995). *Ámbar en cuarto y sin su amigo*. Alfaguara | Nº 68 |
|---|---|
| <br>C ikastetxea (itunpekoa).<br>4. maila. Gaztelania | Eskolako lehen egunean, Ámbar oso triste zegoen, bere lagunik onena Alabamara bizitzera joan zelako eta ezin izango zelako bere ikaskidea izan. Gainera, urrutira bizitzera joan zen aitaren falta sumatzen zuen, eta, amak bikote bat du, Ámbarrek ezagutu nahi ez zuena. Baina eskolan, poliki-poliki, Brendarengana hurbiltzen hasi zen, eta Justo laguna faltan botatzen jarraitzen duen arren, Brendaren lagun mina egin da. |
| Adiskidetasuna eta egokitzapena. | |
| Kontrabalioa: Sexismo. | |

| Danziger, P. (1996). *Siempre seré Ámbar Dorado*. Alfaguara | Nº 69 |
|---|---|
| <br>C ikastetxea (itunpekoa).<br>4. maila. Gaztelania | Ambarrek gurasoak berriro elkarrekin egongo diren itxaropena du, horregatik oso txarto hartzen du bere amak esaten dionean bere bikote berriak, Maxek, ezkontzeko eskatu diola. Amak, Ámbar hain nahigabeturik ikustean, Alabamara joatea erabakitzen du Ambarren laguna ikustera, Justo, duela gutxi hara bizitzera joan dena. Ambar oso pozik dago bere lagunik onena berriro ikusteaz eta Justo egoera berrira egokitzen ari dela behatzen du,inor ezagutzen ez duen hiri berri batera joatea oso gogorra den arren. Orduan, egoerak aldatuz doazela eta ez duela zertan txarrerako izan behar konturatzen da. Horregatik bere ama Maxekin ezkontzen bada, berak bi familia izan ditzakeela eta egoerak aldatu arren, bera beti izango dela Ámbar ondorioztatzen du. |
| Familia, adiskidetasuna eta egokitzapena. | |
| Kontrabalioa: Sexismoa. | |

<table>
<tr><td colspan="2">Bernal, M., El Trollino eta Timba Vk (2018). Los Compas y el diamantito legendario. Martínez Roca Nº 71</td></tr>
<tr><td>

D ikastetxea (itunpekoa). 4. maila. Gaztelania</td><td>Hiru lagun oporretan doaz eta azkenean uharte bat eta mapa bat aurkitzen dute. Mapa deszifratzen saiatzen dira altxor bat aurkitzeko eta horretarako zonbien, eskeletoen zein sorginen aurka borrokatu behar dute. Altxorrera iristen direnean, pertsona onen eskuetan ezpata bihurtzen den diamante bat dela ikusten dute. Geroago ezpata hau mundua ilunpe bihurtu nahi duen munstro bat hiltzeko erabili behar dute, dagoeneko lurrikarak eta suntsipenak eragiten ari dena. Garaitzea lortzen dute, eta gaiztoak zeraman kapa urre bihurtzen da. Protagonistek altxor hau herriari oparitzen diote lurrikarek eragindako kalteak konpontzen laguntzeko.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Adiskidetasuna, ongia egitea, umorea, lankidetza eta lagunkidetasuna.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Kontrabalioa: Kapazitismoa.</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td colspan="2">Ruíz-Thiery, E. eta Santonja, C. (1996). El diario de Arturo. Alfaguara Nº 72</td></tr>
<tr><td>

D ikastetxea (itunpekoa). 4. maila. Gaztelania</td><td>Arturo, bere familiarekin batera, amaren familiaren antzinako etxe batera joan da bizitzera. Arturori bere lagun Feliperekin misterioak argitzea gustatzen zaio. Bere gela berrian gutun misteriotsu bat aurkituko du, eta hura ebazten dutenean, beste misterio batzuk aurkitu ditu, azkenean enigma argitzen duten arte. Hau hilda zegoela uste zuten senide batekin lotuta dago. Haren amak semeak armada uzteak eragin zion lotsagatik denei sinetsarazi zien hil egin zela. Egia esanda, Argentinara joan zen bere maitalearekin eta gutun horiek utzi zituen bere arreba maiteak bizirik zegoela jakin zezan.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Iraunkortasuna, familia, senidetasuna eta ikerketa.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Kontrabalioa: Irain sexista/Homofobia.</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td>Oro, B. (2018). Un cumpleaños de altura. El barco de vapor. Sm</td><td>Nº 74</td></tr>
<tr><td>

D ikastetxea (itunpekoa).<br>3. maila. Gaztelania</td><td>Rasi bere lagun Ismaelen urtebetetzera doa, amaren ile-apaindegian ospatzen dena. Bat-batean, saskibaloiko jokalari ospetsu bat sartzen da ile-apaindegian. Partida bat jokatzera joan behar duela eta ilea moztu behar duela esan die, jokatu zuen azken partida bere erruz galdu baitzuten, ilea begietan sartu baitzitzaion eta ezin izan zuen baloia saskiratu. Ile-apaindegia itxita badago ere, Ismaelen amak ilea mozteko mesedea egiten dio. Ondoren, telebista pizten dute partida ikusteko. Rasi eta bere lagunak oso pozik jartzen dira jokalariak saskiratzen duen bakoitzean haiei buruzko keinu bat egiten duela ikusten dutenean, adibidez, zazpi bat egiten du atzamarrekin, Ismaelek betetzen dituen urteak adieraziz.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Kirola, adiskidetasuna, laguntza eta eskerrekotasuna.</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td>Chandro, J.C. (2002). Rosa está hecha un lío. Pearson Educación</td><td>Nº 75</td></tr>
<tr><td>

D ikastetxea (itunpekoa).<br>3. maila. Gaztelania</td><td>Rosaren aitaren nagusiak afaltzera gonbidatu ditu. Oso afari garrantzitsua da Rosaren aitarentzat, eta, beraz, oso ondo portatu behar dela azpimarratzen diote. Ez daki nola jokatu gonbidatu gisa; beraz, nagusiari etxera gonbidatuak datozenean egiten dioten gauza bera egitea erabakitzen du: burua etengake ukitzen dio, muxu bustiak ematen dizkio, ahoa garbitzen dio, bihurria ez izateko esaten dio... Afaria erabateko porrota da eta gurasoek Rosa zigortzen dute. Baina berak ez du zergatia ulertzen, bere etxera etortzen diren gonbidatuak bezain gizabidetsua izan baita.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Familia, gizarte harremanak eta kortesia.</td></tr>
</table>

<table>
<tr><th colspan="2">Tekendo (2021). Elemental, equipo Tekendo. Martínez Roca — Nº 76</th></tr>
<tr><td>

D ikastetxea (itunpekoa). 3. maila. Gaztelania</td><td>Tekendo Taldea bere etxeko lorategian dago bat-batean Watson doktoreak gidatzen duen denbora-makina bat agertzen denean. Honek berarekin Sherlock Homes detektibearen bila joatea proposatzen die, desagertu egin baita eta pertsonak, bat-batean, animalia zergatik bihurtzen diren deskubritu behar dutela aipatzen die. Beraz, Londresera bidaiatzen dute XIX. mendera eta han Sherlockek utzitako arrasto batzuk jarraitzen dituzte. Azkenean, detektibea aurkitu eta uraren hornikuntzan edozeinek edatean animalian bihurtzen duen edabe bat botatzen ari den gaiztoa aurkitzen dute. Gaiztoa kartzelara doa, eta haiek pertsonek beren giza irudia berreskuratu dezaten uraren hornidurara antidoto bat botatzen dute.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Adiskidetasuna, laguntza, ikerketa, irudimena, asmakuntza eta lankidetza.</td></tr>
</table>

<table>
<tr><th colspan="2">Oro, B. (2017). Rasik hegan egin nahi du. Baporea bilduma. Sm — Nº 77</th></tr>
<tr><td>

D ikastetxea (itunpekoa). 3. maila. Euskara</td><td>Protagonistak 4 laguneko talde bat eta katagorri bat dira. Katagorriak hegan egiten ikasi nahi du eta, horretarako, gaizki amaitzen diren hainbat plan gauzatzen ditu, baina ondorioak arriskutsuak izan daitezkeen arren, ez du amore ematen. Azkenik, lagunei ogitartekoa lapurtzea erabaki du, hegan egiten lagunduko dion uso bati emateko, baina azkenean lagunek harrapatu egiten dute. Lagunek egoera ulertzen dute eta bere ametsa betetzen laguntzea erabakitzen dute</td></tr>
<tr><td colspan="2">Iraunkortasuna, adiskidetasuna, itxaropena, barkamena eta lagunartekotasuna.</td></tr>
</table>

| Kazabon, A. (2015). *Urtziren diarioa*. Gaztetxo!.Ibaizabal | Nº 78 |
|---|---|
| <br><br>D ikastetxea (itunpekoa).<br>4. maila. Euskara | Urtzik letra oso txarra du eta aurreko kurtsoan eguneroko bat idaztea gomendatu zioten. Bertan, bere bizitza azalzen du, bereziki bere egoera familiarra. Bere lagun taldean adoptatua dela duela gutxi jakin duen lagun bat eta gurasoak banatu berri dituen beste bat ditu. Bakoitza bere familia ereduaren inguruko kontuak ditu eta bereziki: bere identitatearen bila daude. Urtzik ez du aita ezagutzen eta bere jatorriaz gehiago jakin nahi du. Bere amak bikote berria dauka eta, gainera, harreman oso txarra du klaseko ikaskide batekin, izan ere, beti bere atzetik dabil bera zirikatzen. Kurtsoa aurrea doala, bere aita gurasoak banatu berri dituen lagunaren aita dela deskubritzen du. |
| Iraunkortasuna eta familia. | |

| Oro, B. (2017). *Rasiren aurkikuntza*. Baporea bilduma.Sm | Nº 79 |
|---|---|
| <br><br>D ikastetxea (itunpekoa).<br>3. maila. Euskara | Rasi parkean dago bere lagunekin. Alfredo lorezainari laguntzen dion dortokaren arrautzetako bat istripu baten ondorioz zuhaitz baten adar batean amaitzen du. Rasi konturatu eta zuhaitzera igotzen da eta lagunak behin eta berriz zuhaitzetik jaisteko eskatu arren, han geratzen da egun batzuetan, arrautzari beroa ematen. Azkenean dortokatxo bat jaiotzen da eta Rasi eta bere lagunek zaintzen dute. Egun batzuk igaro ondoren, lorezaina ama dortokarekin dator zaindu duten dortokatxoa jasotzeko eta jaio berri ziren gainerako dortokatxoekin eramateko. Pena handia sentitzen duten arren, familiarekin ondoen dagoela ohartzen dira, eta bisitatu ahal izango dutela ondorioztatzen dute. |
| Gogoeta, afektua, adiskidetasuna eta animalien zaintza. | |

## 2. eranskina. Liburuetan identifikatutako balioak

| N. | Liburua | Gorputz balioak | Balio indibidualak | Balio afektiboak | Balio moralak | Balio erlijiosoak | Balio intelektualak | Gizarte balioak | Balio ekologikoak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Marisorgin eskolan | | | adiskidetasuna | | | irudimena | lagunartekotasuna | |
| 2 | Ilargiaren eztula | osasuna | | afektua<br>maitasuna | eskerrekotasuna | | irudimena | | |
| 3 | Bi azeri estu eta larri | | | maitasuna | laguntza | barkamena<br>itxaropena | | lagunartekotasuna | animalien zaintza |
| 4<br>35 | Pottoko hipermerkatuan<br>Pottoko hipermerkatuan | | | | | | | | kontsumo kontzientea<br>kontsumo arduratsua |
| 5<br>45 | Momolo<br>Momolo | | | adiskidetasuna | | barkamena | | errespetua | |
| 6 | Ostadarraren zazpi ateak | | iraunkortasuna<br>nortasuna | | | | irudimena | | |
| 7 | Klaudia eta baloien sekretua | | iraunkortasuna<br>balentasuna | | zintzotasuna | | | lagunartekotasuna | |
| 8 | Pako belea | | | adiskidetasuna | | | | | animalien zaintza |
| 9 | Puxkin | | | | | | irudimena | | |
| 10 | Sorgin zibertxakurra | | | familia<br>maitasuna | | | | | animalien zaintza |
| 11 | Salvad a las ballenas | | | adiskidetasuna | | | | lankidetza | animalien zaintza<br>naturarekiko errespetua<br>kontsumo kontzientea |
| 12<br>52 | El Superzorro<br>Super-azeri | | | familia | laguntza | | | bizikidetasuna | animaliekiko errespetua |

| N. | Liburua | Gorputz balioak | Balio indibidualak | Balio afektiboak | Balio moralak | Balio erlijiosoak | Balio intelektualak | Gizarte balioak | Balio ekologikoak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 13 | Un dumper en apuros | | | adiskidetasuna | | | | lankidetza | ingurumena zaintzea<br>birziklapena |
| 14 | Goardalurra | | | | | | irudimena | | |
| 15 | Lehoiaren hortzak | | balentasuna | | | | irudimena | | animalien zaintza |
| 16 | Euri-ttantta | | | | | | | enpatia | |
| 17 | Han-hemengo ipuinak | | ahalegina | maitasuna | ongia egitea | | kultura<br>irudimena<br>umorea | | |
| 18 | Kotti | | balentasuna | adiskidetasuna<br>familia | laguntza | | | | |
| 19 | Txikiak baina bixkorrak | | iraunkortasuna<br>ahalegina | familia | laguntza | ontasuna | | | |
| 20 | Vacaciones en la cocina | | | | | | irudimena | | |
| 21 | ¡No podéis hacer esto conmigo! | elikadura ona | | familia | | | | | |
| 22 | Mumú | | gainditzea | familia<br>maitasuna | laguntza | errukia | | lankidetza<br>lagunartekotasuna | animaliekiko errespetua |
| 23<br>70 | Simón, Simón<br>Simón, Simòn | | | familia | | | irudia<br>umorea | | |
| 24<br>73 | Fray Perico y su borrico<br>Fray Perico y su borrico | | | senidetasuna | laguntza | ontasuna<br>karitatea<br>fedea | umorea | lankidetza<br>lagunartekotasuna | animalien zaintza |

| N. | Liburua | Gorputz balioak | Balio indibidualak | Balio afektiboak | Balio moralak | Balio erlijiosoak | Balio intelektualak | Gizarte balioak | Balio ekologikoak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 25 | Rana por un día | | | maitasuna | | | | lankidetza<br>tolerantzia | animalien zaintza<br>kontsumo kontzientea |
| 26 | Nire aita etxekoandrea da, eta zer? | | | familia | | | | berdintasuna | |
| 27 | Nik erremerre hitz egiten dut, eta zer? | | gainditzea | | | | | berdintasuna<br>errespetua | |
| 28 | Niri ez zait futbola gustatzen, eta zer? | | nortasuna | | | | | berdintasuna | |
| 29 | Nire arreba Aixa | | gainditzea | familia | | | | berdintasuna | |
| 30 | Betaurrekoak ditut, eta zer? | | onarpena<br>gainditzea | | | | | | |
| 31 | Kutuna tuntuna | | gogoeta | adiskidetasuna<br>maitasuna | | | | askatasuna | |
| 32 | Beldurtia naiz, eta zer? | | gainditzea | | | | | | |
| 33 | Kikik koko nahi du | | erantzukizuna | maitasuna<br>familia | | | | lana | animalien zaintza |
| 34 | Etxe bitan bizi naiz, eta zer? | | onarpena | maitasuna<br>familia | | | | egokitzapena | |
| 36 | Itsasoa etxe barruan | | | | | | irudimena | | |
| 37 | Ez zait irakurtzea gustatzen, eta zer? | | nortasuna | | | | | | |
| 38 | Lotsatia naiz, eta zer? | | gainditzea | | | | | | |
| 39 | Ez naiz ilehoria, eta zer? | | | | | | | berdintasuna<br>integrazioa | |

| N. | Liburua | Gorputz balioak | Balio indibidualak | Balio afektiboak | Balio moralak | Balio erlijiosoak | Balio intelektualak | Gizarte balioak | Balio ekologikoak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 40 | Norak suhiltzaile izan nahi du | | iraunkortasuna<br>gainditzea | | | itxaropena | | | |
| 41 | Beñaten eskutitzak | | | adiskidetasuna<br>familia | | barkamena | | | |
| 42 | Sorgina eta maisua | | | maitasuna | | | irudimena | | |
| 43 | Gorritxo eta Beltxiko | | balentasuna | adiskidetasuna<br>maitasuna | | | | lankidetza<br>lagunartekotasuna | |
| 44 | Ni eta nire metroa | | | familia<br>maitasuna | | | umorea | | |
| 46 | Txokolatezko pastela | osasuna | | adiskidetasuna | | | ikerketa | lankidetza | |
| 47 | Aitona Blas eta iratxoak | | gainditzea<br>iraunkortasuna | familia<br>maitasuna | laguntza | | irudimena | | naturarekiko errespetua |
| 48 | Jon txikiren abenturak | osasuna | | adiskidetasuna | | | irudimena | | naturarekiko errespetua<br>animalien zaintza |
| 49 | Pareta Zuloa | | | adiskidetasuna | | | | konpainia | |
| 50 | Xola eta basurdeak | | zentzutasuna<br>erantzukizuna | | | | umorea | | |
| 51 | Xola eta lapurra | | iraunkortasuna | | ongia egitea | | ikerketa<br>umorea | | |
| 53 | Lur izeneko oihana | | onarpena<br>gainditzea | | eskuzabaltasuna | barkamena | | lagunartekotasuna<br>askatasuna<br>errespetua | naturaren zaintza |

| N. | Liburua | Gorputz balioak | Balio indibidualak | Balio afektiboak | Balio moralak | Balio erlijiosoak | Balio intelektualak | Gizarte balioak | Balio ekologikoak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 54 | Finlandiako ipuin eroak | | | | | | | lagunartekotasuna<br>lankidetza | |
| 55 | Miren, Garbiñe eta sorgin baten komeriak | | iraunkortasuna<br>balentasuna | adiskidetasuna<br>familia | | | | | |
| 56 | Botila baten historia | | balentasuna | adiskidetasuna<br>maitasuna | | | | | |
| 57 | Bi kobazulo | | balentasuna | familia | | | irudimena | | |
| 58 | Nur eta herensugearen tenplua | | gainditzea | adiskidetasuna | | | | lankidetza | |
| 59 | Nur eta oihan misteriotsua | | | adiskidetasuna<br>familia | | | | berdintasuna | naturarekiko errespetua |
| 60 | Nur eta irlandar gnomoa | | | adiskidetasuna | laguntza | | irudimena | | |
| 61 | Ortzadarraren azpitik | | | familia<br>adiskidetasuna | laguntza | | irudimena | | |
| 62 | El juego del universo | | | adiskidetasuna | | | umorea<br>ikaskuntza<br>ikerketa | lagunartekotasuna | naturarekiko errespetua |
| 63 | El misterio de los Grumos | | | adiskidetasuna<br>maitasuna | laguntza | | irudimena | lankidetza | naturarekiko errespetua |
| 64 | E lugar más bonito del mundo | | gainditzea<br>ahalegina<br>iraunkortasuna | familia<br>maitasuna | | | | | |
| 65 | El pulpo está crudo | | | | | | umorea<br>irudimena | | |

| N. | Liburua | Gorputz balioak | Balio indibidualak | Balio afektiboak | Balio moralak | Balio erlijiosoak | Balio intelektualak | Gizarte balioak | Balio ekologikoak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 66 | Ámbar quiere buenas notas | | gainditzea<br>ahalegina | familia | | | | egokitzapena | |
| 67 | ¿Seguiremos siendo amigos? | | | adiskidetasuna<br>familia<br>afektua | | | | | |
| 68 | Ámbar en cuarto y sin su amigo | | | adiskidetasuna | | | | egokitzapena | |
| 69 | Siempre seré Ámbar Dorado | | | familia<br>adiskidetasuna | | | | egokitzapena | |
| 71 | Los Compas y el diamantito legendario | | | adiskidetasuna | ongia egitea | | umorea | lankidetza<br>lagunkidetasuna | |
| 72 | El diario de Arturo | | iraunkortasuna | familia<br>senidetasuna | | | ikerketa | | |
| 74 | Un cumpleaños de altura | kirola | | adiskidetasuna | laguntza<br>eskerrekotasuna | | | | |
| 75 | Rosa está hecha un lío | | | familia | | | | gizarte harremanak<br>kortesia | |
| 76 | Elemental, equipo Tekendo | | | adiskidetasuna | laguntza | | ikerketa<br>irudimena<br>asmakuntza | lankidetza | |
| 77 | Rasik hegan egin nahi du | | iraunkortasuna | adiskidetasuna | | itxaropena<br>barkamena | | lagunartekotasuna | |
| 78 | Urtziren diarioa | | iraunkortasuna | familia | | | | | |
| 79 | Rasiren aurkikuntza | | gogoeta | afektua<br>adiskidetasuna | | | | | animalien zaintza |

## 3. eranskina. Liburuetan identifikatutako balioen sailkapena

| N. | Liburua | Gorputz balioak | Balio indibidualak | Balio afektiboak | Balio moralak | Balio erlijiosoak | Balio intelektualak | Gizarte balioak | Balio ekologikoak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Marisorgin eskolan | | | x | | | x | x | |
| 2 | Ilargiaren eztula | x | | x | x | | x | | |
| 3 | Bi azeri estu eta larri | | | x | x | x | | x | x |
| 4<br>35 | Pottoko hipermerkatuan<br>Pottoko hipermerkatuan | | | | | | | | x |
| 5<br>45 | Momolo<br>Momolo | | | x | | x | | x | |
| 6 | Ostadarraren zazpi ateak | | x | | | | x | | |
| 7 | Klaudia eta baloien sekretua | | x | | x | | | x | |
| 8 | Pako belea | | | x | | | | | x |
| 9 | Puxkin | | | | | | x | | |
| 10 | Sorgin zibertxakurra | | | x | | | | | x |
| 11 | Salvad a las ballenas | | | x | | | | x | x |
| 12<br>52 | El Superzorro<br>Super-azeri | | | x | x | | | x | x |
| 13 | Un dumper en apuros | | | x | | | | x | x |
| 14 | Goardalurra | | | | | | x | | |
| 15 | Lehoiaren hortzak | | x | | | | x | | x |

| **N.** | **Liburua** | **Gorputz balioak** | **Balio indibidualak** | **Balio afektiboak** | **Balio moralak** | **Balio erlijiosoak** | **Balio intelektualak** | **Gizarte balioak** | **Balio ekologikoak** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 16 | Euri-ttantta | | | | | | | x | |
| 17 | Han-hemengo ipuinak | | x | x | x | | x | | |
| 18 | Kotti | | x | x | x | | | | |
| 19 | Txikiak baina bixkorrak | | x | x | x | x | | | |
| 20 | Vacaciones en la cocina | | | | | | x | | |
| 21 | ¡No podéis hacer esto conmigo! | x | | x | | | | | |
| 22 | Mumú | | x | x | x | x | | x | x |
| 23<br>70 | Simón, Simón<br>Simón, Simòn | | | x | | | x | | |
| 24<br>73 | Fray Perico y su borrico<br>Fray Perico y su borrico | | | x | x | x | x | x | x |
| 25 | Rana por un día | | | x | | | | x | x |
| 26 | Nire aita etxekoandrea da, eta zer? | | | x | | | | x | |
| 27 | Nik erremerre hitz egiten dut, eta zer? | | x | | | | | x | |
| 28 | Niri ez zait futbola gustatzen, eta zer? | | x | | | | | x | |
| 29 | Nire arreba Aixa | | x | x | | | | x | |
| 30 | Betaurrekoak ditut, eta zer? | | x | | | | | | |
| 31 | Kutuna tuntuna | | x | x | | | | x | |
| 32 | Beldurtia naiz, eta zer? | | x | | | | | | |

| N. | Liburua | Gorputz balioak | Balio indibidualak | Balio afektiboak | Balio moralak | Balio erlijiosoak | Balio intelektualak | Gizarte balioak | Balio ekologikoak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 33 | Kikik koko nahi du | | x | x | | | | x | x |
| 34 | Etxe bitan bizi naiz, eta zer? | | x | x | | | | x | |
| 36 | Itsasoa etxe barruan | | | | | | x | | |
| 37 | Ez zait irakurtzea gustatzen, eta zer? | | x | | | | | | |
| 38 | Lotsatia naiz, eta zer? | | x | | | | | | |
| 39 | Ez naiz ilehoria, eta zer? | | | | | | | x | |
| 40 | Norak suhiltzaile izan nahi du | | x | | | x | | | |
| 41 | Beñaten eskutitzak | | | x | | x | | | |
| 42 | Sorgina eta maisua | | | x | | | x | | |
| 43 | Gorritxo eta Beltxiko | | x | x | | | | x | |
| 44 | Ni eta nire metroa | | | x | | | x | | |
| 46 | Txokolatezko pastela | x | | x | | | x | x | |
| 47 | Aitona Blas eta iratxoak | | x | x | x | | x | | x |
| 48 | Jon txikiren abenturak | x | | x | | | x | | x |
| 49 | Pareta Zuloa | | | x | | | | x | |
| 50 | Xola eta basurdeak | | x | | | | x | | |
| 51 | Xola eta lapurra | | x | | x | | x | | |
| 53 | Lur izeneko oihana | | x | | x | x | | x | x |

| N. | Liburua | Gorputz balioak | Balio indibidualak | Balio afektiboak | Balio moralak | Balio erlijiosoak | Balio intelektualak | Gizarte balioak | Balio ekologikoak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 54 | Finlandiako ipuin eroak | | | | | | | x | |
| 55 | Miren, Garbiñe eta sorgin baten komeriak | | x | x | | | | | |
| 56 | Botila baten historia | | x | x | | | | | |
| 57 | Bi kobazulo | | x | x | | | x | | |
| 58 | Nur eta herensugearen tenplua | | x | x | | | | x | |
| 59 | Nur eta oihan misteriotsua | | | x | | | | x | x |
| 60 | Nur eta irlandar gnomoa | | | x | x | | x | | |
| 61 | Ortzadarraren azpitik | | | x | x | | x | | |
| 62 | El juego del universo | | | x | | | x | x | x |
| 63 | El misterio de los Grumos | | | x | x | | x | x | x |
| 64 | E lugar más bonito del mundo | | x | x | | | | | |
| 65 | El pulpo está crudo | | | | | | x | | |
| 66 | Ámbar quiere buenas notas | | x | x | | | | x | |
| 67 | ¿Seguiremos siendo amigos? | | | x | | | | | |
| 68 | Ámbar en cuarto y sin su amigo | | | x | | | | x | |
| 69 | Siempre seré Ámbar Dorado | | | x | | | | x | |
| 71 | Los Compas y el diamantito legendario | | | x | x | | x | x | |
| 72 | El diario de Arturo | | x | x | | | x | | |

| N. | Liburua | Gorputz balioak | Balio indibidualak | Balio afektiboak | Balio moralak | Balio erlijiosoak | Balio intelektualak | Gizarte balioak | Balio ekologikoak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 74 | Un cumpleaños de altura | x | | x | x | | | | |
| 75 | Rosa está hecha un lío | | | x | | | | x | |
| 76 | Elemental, equipo Tekendo | | | x | x | | x | x | |
| 77 | Rasik hegan egin nahi du | | x | x | | x | | x | |
| 78 | Urtziren diarioa | | x | x | | | | | |
| 79 | Rasiren aurkikuntza | | x | x | | | | | x |

## 4. eranskina. Liburuetan identifikatutako kontrabalioak

| N. | Liburua | Kontrabalioak |
|---|---|---|
| 12<br>52 | El Superzorro<br>Super-azeri | Matxismoa |
| 21 | ¡No podéis hacer esto conmigo! | Matxismoa |
| 28 | Niri ez zait futbola gustatzen, eta zer? | Matxismoa |
| 30 | Betaurrekoak ditut, eta zer? | Matxismoa |
| 32 | Beldurtia naiz, eta zer? | Matxismoa |
| 33 | Kikik koko nahi du | Matxismoa |
| 37 | Ez zait irakurtzea gustatzen, eta zer? | Matxismoa |
| 49 | Pareta zuloa | Matxismoa |
| 54 | Filandiako ipuin eroak | Matxismoa |
| 58 | Nur eta herensugearen tenplua | Sexismoa |
| 68 | Ámbar en cuarto y sin su amigo | Sexismoa |
| 69 | Siempre será Ámbar Dorado | Sexismoa |
| 71 | Los Compas y el diamantito legendario | Kapazitismoa |
| 72 | El diario de Arturo | Irain sexismoa/homofobia |

## 5. eranskina. Identifikatutako balioei buruzko grafikoak




*1. grafikoa. Liburuetan identifikatutako balioak (Leire Loroño, 2022).*




*2. grafikoa. Identifikatutako gorputz balioak (Leire Loroño, 2022).*




*3. grafikoa. Identifikatutako balio indibidualak (Leire Loroño, 2022).*




*4. grafikoa. Identifikatutako balio afektiboak (Leire Loroño, 2022).*




*5. grafikoa. Identifikatutako balio erlijiosoak (Leire Loroño, 2022).*




*6. grafikoa. Identifikatutako balio moralak (Leire Loroño, 2022).*




*7. grafikoa. Identifikatutako balio intelektualak (Leire Loroño, 2022).*




*8. grafikoa. Identifikatutako gizarte balioak (Leire Loroño, 2022).*




*9. grafikoa. Identifikatutako balio ekologikoak (Leire Loroño, 2022).*

## 6. eranskina. Irakasleei egindako elkarrizketak

1. Bidalitako liburuak ikastetxeak gomendatzen dituen liburuak dira? Edo haurrak hauek irakurtzera behartuta daude?

   **A ikastetxea:**

   Ikasleek liburuak irakurtzen dituzte eta batzuetan liburu horiei buruzko fitxak egiten dituzte, baina ez da beti egiten den jarduera bat.

   **B ikastetxea:**

   Ikastetxeak euskarazko zein gaztelaniazko liburu zerrenda bat du eta pandemiaren aurretik liburu hauek ikasleei gomendatzen saiatzen ginen. Inoiz ez da liburu hauei buruzko azterketarik edo frogarik egin, kurtso hasieran ikasleei liburu horiek irakurtzea gomendatzen genien eta irakurrita zutenean, liburuari buruzko balorazio bat egiten genien, esate baterako, ea liburua haien gustukoa izan den ala ez, eta ea irakurtzeko erraza izan den ala ez.

   **C ikastetxea:**

   Irakurtzeko derrigorrezkoak diren liburuen zerrenda bat daukagu. Ikasleek bidalitako liburua irakurtzen dute eta horri buruzko azterketa bat egiten da. Horrela, ikasleen irakurmena eta horren garapena ebaluatzen dugu. Bestetik, ikasleek haien gustukoa den

liburu bat ekar dezakete eta klasean hori irakurtzeko denbora uzten diegu. Kasu honetan liburuen irakurmena ez da ebaluatzen eta bakarrik irakurketa sustatzeko egiten da.

**D ikastetxea:**

Kurtso hasieran ikasleek gustukoak dituzten liburuak ekartzen dituzte eta klasean liburutegi moduko bat egiten dugu. Orduan, kurtsoan zehar ikasleek liburu horiek trukatzen dituzte edo berri batzuk ekar ditzakete. Klasean liburu horiek irakurtzeko denbora ematen zaie, baina ez zaie inolako ebaluaziorik egiten.

2. Zertan oinarritzen zarete liburu hauek aukeratzeko? Zer irizpide hartzen dituzue kontuan?

**A ikastetxea:**

Ekonomia da kontuan hartzen den alderdi nagusiena. Hau da, ikasleek liburu hori erosi ez dezaten saiatzen gara. Ikasleen gustuak garrantzi handiko alderdia izaten. Hizkuntzari dagokionez, euskarazko liburuei lehentasuna ematen diegu, izan ere, ume gehienek ez dute hizkuntza hau etxean hitz egiten.

Liburu zerrenda bat daukagu eta gutxitan aldatu egiten da, salbuespen bakarra ikasleen balorazioa oso negatiboa izatea da. Liburua gehienei gustatu ez bazaie, irakurtzeari utziko litzaioke.

**B ikastetxea:**

Liburu zerrenda bat daukagu eta bertan agertzen diren izenburuak ez dira berrikusten. Pandemiak egoera okerragotu du, izan ere, momentu honetan ez ditugu zerrenda horretako liburuak gomendatzen. Pandemia aurretik liburu horiek gomendatzen saiatzen ginen, baina egia esanda ikastetxeak nahiko utzita duen hezkuntza-baliabidea da eta horren arrazoi bakarra denbora falta da.

Aipatutako zerrenda horretan agertzen diren liburuak aukeratzerako orduan, kontuan hartu zen familiek liburu hori erosi beharrik ez izatea, hau da, urte batetik bestera lagatzen ziren. Zerrenda horretan euskarazko zein gaztelaniazko liburu kopuru berdina dago, beraz, ez zaio hizkuntz bati inolako lehentasunik ematen.

**C ikastetxea:**

Zerrenda liburu bat daukagu eta bertako liburuak aldatzen joaten gara, izan ere, liburua ikasleen gustukoa ez bada aldatu egiten dugu edo liburu berriagoengatik ordezkatzen ditugu. Gainera, liburu gehienak euskaraz dira, gaztelaniazko izenburu oso gutxi ditugu. Ikasleek euskaraz irakurtzen ikasten dute eta ondoren gaztelania sartzen joaten gara. Beraz, liburuak aukeratzerako orduan alderdi hauek kontuan hartzen dira.

**D ikastetxea:**

Ikasleek haien etxeko liburuak ekartzen dituzte, beraz, haiek dira liburuak aukeratzen dituztenak. Ez zaiei inolako baldintzarik jartzen, beraz, hizkuntzari dagokionez, euskarazko zein gaztelaniazko liburuak ekar ditzakete. Berriz, ikasle gehienek gaztelaniazko liburuak nahiago dituzte.

3. Nolako garrantzia ematen diozue irakurketa-jarduerei?

**A ikastetxea:**

Ikasleek denbora izaten dute klasean irakurtzeko eta lan hori gero etxean bukatzen dute. Beraz, bidaltzen diren liburuak klasean lantzen dira. Jarduera honi irakasle moduan garrantzi handia ematen diot, askotan liburuetan sakontzeko denbora falta nabaritzen den arren.

**B ikastetxea:**

Aurretik aipatu dudan moduan, liburuak bakarrik gomendatu egiten dira eta pandemiarengatik hau egiteari utzi diogun arren, aurretik jarduera hau nahiko abandonatuta genuen. Beraz, denbora falta dela eta, ikastetxeak ez die garrantzi handirik ematen irakurketa-jarduerei, haien garrantzitsua den alderdi honi jarduera oso gutxi eskaintzen baitzaizkio. Azkenean, irakurketa ezinbesteko ikaskuntza da, bereziki adin honetako haurrentzat.

**C ikastetxea:**

Funtsezko ekintzak dira eta gelan liburuak irakurtzeko denbora ematen den arren, ez da gehiegizkoa. Aipatu behar da liburuak irakurtzeaz gain, askotan irakurmen fitxak egiten ditugula, hau da, ikasleek gutxi gorabehera orrialde bateko luzera duen testua irakurtzen dute eta horri buruzko galderak erantzuten dituzte.

**D ikastetxea:**

Irakurketa garrantzi handiko jarduera da, berriz, ez zaio denbora askorik eskaintzen. Ikasleek klaseko liburuak irakurtzen dituzte, baina ez da horri buruzko inolako jarduerarik gauzatzen. Egia da, askotan irakurmen fitxak egiten ditugula, baina liburuei buruzko jarduerak egitea beharrezkoa den zerbait da.